

TOKIKOM

2018ko urria | 185. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

Agur pinuari?



Zuri esker gara izar



2500€
Oparituko
dugu

Azaroan

eta Abenduan, elkaritearen barruan dauden

hiru saltoki ezberdinetan 10 eurotik

gorako erosketak

egiteagatik,

500€-ko 5 TXEKE



Txartelak Kultur Birikan

utzi beharke dira, zigilatuta.

Zozketa abenduaren 26an egingo da, 19:00etan Kultur Birikan.




Euskadi *argituz, bizi gaitu*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MUSEOAK
ETA MONUMENTUAK
DEPARTAMENTU DE TURISMO
CULTURIO Y MONUMENTOS

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Evarista Meabe eta Edurne Lekanda
-  **12** Gurean izan da... Paco Etxeberria, medikua
-  **14** Gaztea eta... Izaro Lezkano, arraunlaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Gai nagusia... Pinua gaixorik dago
-  **22** Zamudioko San Martin jaiak
-  **26** Txorierriko I. Topaketa Feministak
-  **28** Amalio Fernandez, Loiuko Cadillac bakartia
-  **30** Gotzon Barandiaranen *Hitzen ahairea* liburua
-  **32** Taldeak... Lezama Sport futbol taldea
-  **34** Teknologia... 5G, datozen telefonoen hizkuntza
-  **35** Aikorrizketa... Ahobizi eta belarriprest
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Paco Etxeberria, auzitegi-medikua



22 Zamudioko San Martin jaiak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Jon Ander Rola, Azler Garcia, Idoia Andres, Xabier Diaz, Jon Goikouria Larrabeiti, Itallen bertso eskola, Gaizka Peñafiel, Alaitz Ziordia, Eider Palmou eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Portadako argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Neu ere bai

Gaztea nintzela, batek esan zidan ez zela normala gaztea izanik iraultzailea ez izatea, baina urteak aurrera joan ahala iraultzailea izaten jarraitzen duena zoro samarra dela. Neuk urteak betetzen joan arren, aitortu behar dut eraldatzaileak diren herri mugimenduek oraindik liluratsen nautela. Eta aurtan aipagarriak izan dira, nire ustez, jubilatuen eta Estatu Batuetako *Me Too*-k sortutako olatuan surf egiten indartutako emakumeen eskubideen aldeko mugimendua. Mugimendu feministak sortu didan zirrarari buruz hitz egingo dut.

Azken urteotan aldaketak egon diren arren, emakumeek oraindik esfortzu handia egin eta mila oztopo gainditu behar dituzte, zuzendaritza postuetara edo politikako goi-postuetara heltzeko, gizonen pareko lana eta gizarte maila izateko, kirolean lortutako arrakastak gizonezkoen mailara heltzeko (bai ekonomikoki, bai komunikabideetan); Hondarribia eta Iru-neko alardeetan oraindik erdi ezkutuan

desfilatu behar dute, eta herrikideen isekak eta mespretxuak jasan.

Eta gainera, gero eta emakume gehiago hiltzen ari dira gizonen eskuetan, euren jabetza legezt hartzen dituztelako. Bortxaketa erabiltzen da, emakumeak mendekoak direla erakusteko. Emakumeak mintzeko, beren seme-alabak hiltzera ere hel daiteke. Eta egunero-kotasunean, emakumeak ezin dira bere etxera itzuli arriskuan daudela pentsatu gabe. Horregatik, hasieran esan dud bezala, Emakumeen Eguneko manifestazio jendetsuak haize freskoko bolada itxaropentsuak izan direla uste dut, "Mánada"-ren epaiaren aurka jendeak kaleak bete izana eta gero eta emakume gazte gehiago antolatzea.

Gure gizartea aldatuko dutenak hauek izango dira: mobilizazioetan gero eta gizonezko gehiago egotea; biolentzia matxista eta emakume eta gizonen arteko parekotasuna hezkuntzan ardatz transbertsal bezala etapa guztietan lan-



JON ANDER ROLA
Irakaslea

tzea; mugimendu feministari esparru batzuetatik botatzen dizkioten isekak ez onartzea; eta gizonok eztabaidetan beti defentsiban egon beharrean, arrazoiketa feministak gauza pertsonal moduan hartuz, jarrera eta esamolde matxistak baztertzea.

Oraintsu Zamudion ospatu dituzten Topaketa Feministetan dantzatu zuten abestiaren leloak dioenez, bada garaia "erre zituzten sorginen seme-alabok" ginarra hartu eta geure gizarte honi garbialdi bat emateko.

Aurreko egunean, telebista ikusten nengoela, euskaratutako telesail katalan batekin egin nuen topo eta, jatorrizko bertsioan azpitituluen laguntzaz ikusita neukan arren, berriro ikustea erabaki nuen. Ezagutzen dudana hizkuntza batean ikusteak hori hobeto ulertzen lagunduko zidala pentsatu nuen.

Poztu barik, haserretu egin ninduen entzun nuenak: jatorrizko bertsioan bakarrik espainolez zekien pertsonaia, bizkaieraz berbetan, azentu eta guzti. Mendebaldeko euskarak bereizgarri dituen hitzak ere erabiltzen zituen, *gura*, *barik*, *zelan*... Tipikoak, topikoak. Neure buruari galdetu nion ea zerikusirik zuten bizkaie-

Estigmak geureganatzen



AZLER GARCIA
Ingeles Filologia Ikaslea

razko hitzunek eta Kataluniako hiztun espainolek, baina ezin erantzunik aurkitu.

Azentu andaluziarren eta AEBtako afroamerikarren hizkeraren zapalkuntza etorri zitzaidan burura. Hizkuntzak itzultzean, aurreiritzi eta estigmak ere itzultzen dira, eta kontuz ibili behar da horiek mingarriak ez izateko. Gurean espainolez baino ez dakien lagunik ez dugu ala? Bertokoa eta kanpokoa, gu eta zu mugatzeko osatzen gaituena erabiltzen badugu, inoiz ez gara konturatuko zati ezberdinek eraikitzen gaituztela. Ez hobeak, ez txarragoak; ezberdinak baino.

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe B 634 410 470
48150 SONDICA auzokidefincas@gmail.com

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

arragandik gertu

ABOKUARIATZA - TASAZIOA
ALOKATZEA - ENKALDATZEA
SALEROKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

yedra
floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 SONDICA - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Aizkolaririk onenek indarrak neurtuko dituzte Loium



harri zilindrikoa altxatu beharko dute, eta harri bakoitzarekin hiru minutuan ibiliko dira. Eta aizkolarik gazteek ere jardungo dute 14:15ean. Xuan Cañamaresek, Ibai Zabalak eta Hodei Ezpeletak kanaerdiko seina enbor ebaki beharko dituzte.

Zozketa

Ikusleek txerriki errea dastatzeko aukera edukiko dute 15:00etatik aurrera, eta hasieran aipatu bezala, ekitaldi nagusia 17:00etan izango da. Sarrerak 20 euro balio du eta horrekin saio guztietara sartu ahal izatea eta txerrikiaren dastatzea dau-de. Sarrerak www.basquesports.eus webgunean, 667 629 440 telefono zenbakira deituta, info@basquesports.eus helbide elektronikora mezu bat bidalita, eta Aurregoiti jatetxean eskuratu daitezke. Loizutarrak eta 12 urtetik beherakoak doan sartuko dira gunera, baina txerriki errea dastatu nahi badute, gutxienez zozketarako txartel bat erosi beharko dute. Izan ere, antolatzaileek 2.000 euro balio duen Arkadia Speed Axe kutxa bat zozketatuko dute. Kutxaren barruan lau aizkora egongo dira. Bestetik, auto eta autobusetarako aparkalekua atonduko da.

Saio nagusia amaitzen denean, 18:00etan, guneko ateak zabalduko dira, sari-banaketa edonork ikusi ahal izateko. Jaia biribiltzeko, omenaldia egingo diote sokatira euskal selekzioari, munduko txapelketan lortutako zazpi dominagatik, eta euskal kantak abestuko dira.

Azaroaren 10ean, Loiu-Larraoetxe Sari Berezia izango da, eta bertan gaur egungo aizkolaririk onenatariko batzuek hartuko dute parte: Aitzol Atutxa bizkaitarrak, Iker Vicente nafarrak eta Xabier Orbegozo Arria V gipuzkoarrak. Erronka Basque Sports plataforma berriak antolatu du eta Larraoetxeko probalekuan izango da 17:00etatik aurrera. Aizkolariek 14 kanaerdiko moztu beharko dituzte. Azkarrenak txapela eta 1.000 euro jasoko ditu saritzat.

Ekitaldi nagusia arratsaldean egingo bada ere, antolatzaileek egitarau oparoa prestatu dute egun osorako. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Loiu Udalaren laguntza eduki dute horretarako. Lehengo saioa

txinga-eroatea izango da. Xanta Sousa lehian arituko da Nerea Egurrolarekin 11:00etan. Egurrola Bizkaiko txapelduna da gaur egun. Gizonen txanda 11:45ean izango da. Ousmane Drame eta Kerman Perez de Heredia norgehiagoka ibiliko dira. Lehena Euskadiko txapelduna da; eta bigarrena, txapeldunordea.

Bestalde, harri-jasotzaileak ere egongo dira Loium. Euskal Herriko Harri-jasotzaile Kintopekoen Txapelketa 12:45ean izango da eta horretan hauek arituko dira: Jon Gisasola (Bizkaia), Aritz Etxebarria (Bizkaia), Manex Aburuza (Gipuzkoa) eta Iraitx Arruti (Gipuzkoa). Harri-jasotzaileek 100 kg-ko harri kubikoa eta 100 kg-ko

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala




Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA Etegiabeko ordutegia

Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51



Sabino Arana, 1-3. SONDIKA

IRATXO gozotegia



tarta pertsonalizatuak
brufak
leihak
pastelak
pastak

Mikel Zurita, 2 - 5. lorja • Sondika, 48150 • 94 453 09 19



Lzpilen

PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Aurrekontu parte-hartzaileak, Lezaman

Lezamako Udalak batzarrera deitu die herritarrei, udal aurrekontuen haritik euren ekarpena egin dezaten. Batzarrak auzoz auzo egingo dira azaroan.

Goitioltza auzoko lezamarrek euren iritzia eman ahaliko dute hilaren 7an, 18:30ean, Goitioltzako Txokoa. Herrigunean bizi direnek, hilaren 9an, 18:30ean, Udaletxean; eta Garaioltza auzokoek, hilaren 10ean, 11:00etan, Bolalekun. Lorra, Loroño eta Ugarte auzoetako herritarren txanda ere hilaren 10ean izango da. Hitzordua 12:30ean edukiko dute Txakoli Loroñon. Aretaldeko biztanleek euren proposamenak egin ahaliko dituzte hilaren 14an, 18:30ean, eliza-atarian; eta Kurutze auzokoek, hilaren 16an, 18:30ean, ermitan.

Bestalde, batzar zabala egingo da azaroaren 30ean, 18:30ean, Uribarri topalekuan. Batzar horretan 2019ko aurrekontuetan jasoko diren proiektuak aukeratuko dira.



Zamudio, infernu handi

Herri txiki infernu handi ETBko saioa da eta ekipoa urriaren hasieran izan zen Zamudion. Telebistako lagunek bizpahiru egun eman zituzten herrian gora eta behera eta, besteak beste, Gabriel Etxebarria, Zorione Santa Cruz, Esther Garai, Josean Uriarte eta Soba familia elkarrizketatu zituzten. Elkarrizketak egin ostean, telebistarako saioa urriaren 11n grabatu zuten herriko frontoian eta bertan "herri osoa" batu zen. Saioa azaroaren 11n, San Martin egunean, igorriko dute ETB-1ean.

"Grabazioan primeran pasatu genuen giro itzela egon zen-eta. Denetariko lagunak hurbildu ziren: gazteak, nagusiak, familiak... Guztiek jakin-min handia zuten,

saioan nortzuk agertzen ziren ez zekitelako", esan digu Iñaki Atxutegi Lagatzuko euskara elkartearen kideak. "Nik bereziki Geroni egindako elkarrizketa aipatuko nuke. Emakumeak 91 urte ditu eta telefono mugikorra dauka (kar, kar). Guztira, 25-30 lagunekin hitz egin zuten, baina horietako zortziren bat bakarrik agertuko dira saioan", adierazi du Atxutegik. Telebista-saioan ateratzeko proposamena Lagatzuk egin zuen 2017ko Gabonetan. "Guztiok dakigu Zamudio nolako herria den, euskarari dagokionez. Guk, telebista-saioari esker, herriari kutsu euskaldun bat eman nahi izan genion, behintzat egun batean".



AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Peiukeria
Estetika

94 455 81 44

Agulen 2. behea Larrabizua-Bizkaia

TURREGOITI
JATETXEA

Laurola etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

BASALBEITIKO
TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denarikoa eta abar

Bizkaiko Txakolina

Goitioltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46



Igorreko finalaurrekoan abestuko du Amenabarrek azaroan

a: Bizkaiko Bertsozale Elkartea

Urriaren 14an, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren bigarren kanporaketa jokatu zen Santurtzin eta hori Malen Amenabar Larrañaga larrabetzuarrak irabazi zuen. Ondorioz, finalaurrekoetarako txartela lortu zuen eta Igorreko saioan kantatuko du azaroaren 25ean. Finalaurrekoa udal kiroldegian izango da, eta larrabetzuarrarekin batera Beñat Ugartetxea Ostalaza, Nerea Ibarzabal Salegi eta Onintza Enbeita Maruregi bertsolariak arituko dira. Baita Berriatuko saioaren irabazlea eta puntuazioz hirugarrena geratzen dena ere.

Bestetik, Etxahun Lekue Etxebarria larrabetzuarra be badabil txapelketan

lehian. Lekue hirugarren kanporaketa egongo da abenduaren 1ean, Lekeitioko Santi Brouard pilotalekuan. Ibon Ajuria-gojeaskoa Garmendia, Jone Uria Albizuri eta Txaber Altube Sarrionaindia ere izango dira Lekeition, eta haiekin batera, puntuazioz lehenengoa eta laugarrena geratzen direnak. Finala abenduaren 15ean izango da Bilbon, Bilbao Arenan (Miribilla). Bizkaiko txapela lortzeko hauek lehiatuko dira: Berrizeko, Igorreko eta Lekeitioko irabazleak eta puntuazioz lehenengo bostak. Saio guztiak arratsaldeko 5etan egingo dira.

Informazio gehiago: www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa eta Facebook, Twitter eta Instagram gizarte sareetan.

Tio Teronen Semeak azaroan, Zamudion

Hiru Bat dantza taldeak antolatuta, Tio Teronen Semeak taldeak ikuskizuna eskainiko du azaroaren 3an, zapatuan, Zamudion. Taldeki-deek buelta eman diote dantza tradizionalari, eta umorea eta parodia sartu dituzte euren emanaldietan. Hogeitabat dantzarik eta lau musikarik osatutako lantaldea da, eta Euskal Herriko plazaz plaza dabilta ikusleari irribarre eta algarak sorrarazten.

Emanaldia arratsaldeko 6etan izango da Kultur Etxean; eguraldi txarra badago, frontoira eramango dute ikuskizuna.

Larrabetzuarrak aurrera doaz Emakume Master Cup-ean

Txapelketari urrian eman zioten hasiera Gazteizen. Txapelketak gero eta arrakasta handiagoa du, izan ere, gero eta pilotari gehiagok hartzen dute parte: iaz, 80; aurtun, 92. Pilotari horietako 80 promozio mailan ibiliko dira; eta 12, lehen mailan. Pilotarien artean larrabetzuarrak daude.

Lehenengo kanporaketak urriaren 21ean jokatu ziren, eta Libe Barrenetxeak, Junkal Gonzalezek, Jone Goirik eta Maddi de Abajok saikapena lortu zuten promozio mailan; Nerea Sagarna eta Paula Iturbide, aldiz, kanpoan geratu ziren.

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unibte 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Espezialitate guztiak zentru bakar baitzen
- Aurrekontua doan
- Espezialitatea: umeak

astikenemotor
WWW.ASTIKENEMOTOR.COM

DERIO - 946 451 781

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

elekma
URRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK, TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TUKAK

lehenengo markak • Prezioak onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txapeltari ekoizlea: 25-3.N • 48180 LOIU
T: 944 539 232
www.elekma.es

BATZOKI LOIU

Eguneko menua
Asteburuko menua
Menu bereziak
Bakariak, enkarguz
Hamburgesak
Plater konbinatuak
Anoak
Otaratekoak

Abadetxe kalea, 8
LOIU
Tel. 94 612 95 35

BOLALEKU
JATETXEA

Hainbat menu
• Karta
• Ospakizunak
• BOLAPARK

Gazteluz, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jarraitu Facebooken

Euskal azoka, Sondikan

Hogeita bigarren aldiz egingo da azaroaren 18an, 10:00etatik 15:00etara. Bertoko produktuak salgai ipintzeaz gainera, txalaparta erakustaldia egongo da eta Sokatira Bizkaiko txapelketa ere egingo da egun horretan. Era berean, kalejira izango da Elaiak txistu taldearen eskutik, eta umeentzako tailerrak eta txalaparta tailerra egingo dira. Gorantzaleak dantza taldearekin batera, erraldoiak eta buruhandiak Ikurrinaren plazatik aterako dira 12:00etan dantza-poteoa egitera, eta Bentazaharreko mutiko alaiek euskal kantak eskainiko dituzte 13:00etan. Ondoren, dantza kantak egongo dira Ikurrinaren plazan. Bestetik, goizean janari ez galkorra jasoko da, Elikagaien Bankuari emateko.

Fair Saturday

Sondikan, azaroaren 24an eta Santa Zezilia egunari eta Fair Saturday egitasmoari lotuta, kontzertu berezia eskainiko dute 19:45ean, San Joan Bautista elizan. Musika-saioan hauek hartuko dute parte: Gorantzaleak dantza taldea, Gorondagane umeen abesbatza, Txuma Olagüe abesbatza, Olagüe talde korala eta Pentagrama akordeoi orkestra. Baitzen den dirua Caritasi emango diote.

Bestetik, Loiaun musika-ekitaldia ere edukiko dute azaroaren 24an, Fair Saturday egitasmoaren haritik. Benantzi Bilbaok organo kontzertua eskainiko du 12:30ean, San Pedro elizan.

Gorka Urreiztieta ren lanak, Baserri Antzokian ikusgai

Gorka Urreiztieta mendiaren eta itsasoaren zale amorratua da eta horiek biak Txorierrira ekarri dizkigu bere egurrezko tailen bidez. Baserri Antzokian, Derion, 65 lan ipini ditu ikusgai; eguzki-loreak, erretratuak eta marinel-motiboak, tartean. Erakusketa argazki batzuek ere osatzen dute, Santurtzikoa argazkizalea ere bade-lako.

Gorka 2011n hasi zen egurra lantzen eta dagoeneko 200 lan egin ditu. Tailen munduan bere bilobagatik, Oihanengatik, sartu zen. "Jaio zenean, ikusi nuen lehen aldiari, ferekatu nuen eta berak atzamarretik heldu zidan. Beste eskuarekin argazkia

atera nuen, baina pentsatu nuen momentu hori beste modu batean gorde behar nuela, eta tailla bat egiteari ekin nion". Handik hona 200 lan inguru egin ditu. "Liluratuta nauka zaletasunak, entretenitzen naizelako eta, tailak nahiko ondo ateratzen zitzaizkidanez, animatu egiten naizelako".

Azaldu digun moduan, intxaurren zura erabiltzen du lan egiteko, eta Baserri Antzokira hurbiltzen denak, besteak beste, hauek topatuko ditu bertan: familiaren erretratuak, eguzki-loreak, dimentsio handiko sardina-saltzaile bat eta arrantzaleen lana adierazten duten tailak. Gorka lanean ikusteko aukera ere edukiko du.



Oscar Benegas Dañobeitia doktorea
Familia eta komunitateko medikuntza

Garaioltza 74
LEZAMA 48196

660 359 939

Cosalud **SANITAS**

IMQ
Tu seguro médico

LEZAMAKO BATZOKIAK

GARAIOLTZA AUZOA 1208
946561719
batzokilezama@gmail.com

GOXO-GOXO LOHITZUN

Ateratsaldetako zehelak
Ogile eguneroko
Postaleko aukerak

Garaioltza, 77e
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

SOLAZPI

Goitioltza, 33 bis LEZAMA
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com

LEJARRENE JATETXEA
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Bizkaiko garraio publikorako txartel bakarra eskatu dute berriro



L3 Txorierrri Plataformak eta Lezama Bizirik elkarteak bat egin dute Txartel Bakarraren aldeko foroaren eskaerarekin. Foroak sei proposamen nagusi ditu: garraibide batetik bestera aldatzea doakoa izatea; garraio-operatzaile guztiek tarifa berberak edukitzea; txartelaren prezioa progresiboa izatea, hau da, zenbat eta gehiago erabili, hainbat eta merkeagoa izan; txartelaren prezioa pertsona/familia-errentara egokitzea; txartela Bizkaiko garraibide publiko guztietan erabili ahal izatea; eta oraingo garraio publikoko sareari eustea edo hobetzea.

Foroko kideak Bizkaiko Batzar Nagusietako alderdi politikoekin bildu dira, eta eskatu diete osoko bilkurara txartel bakarrari buruzko txosten teknikoa egiteko arauz besteko proposamena eramateko. "Gure asmoa da Bizkaiko Garraio Publikoaren 2018-2028ko Plan Estrategikoaren

barruan, Txartel Bakarraren proposamenaren eskumenari, legezkotasunari, bidegarritasunari eta kostuari buruzko atala sartzea".

Euren ustez, Garraio Publikoaren 2017ko Txostenaren datuek argi utzi dute txartel bakarra ezinbestekoa dela Bizkaiko garraio publikoa hobetzeko. "Txorierrin, hirugarren linea heldu eta maiztasunak hobetu ondoren, bidaia-kopuruak gora egin zuen. Baina diru-bilketa ere hazi zen, % 46 hain zuzen. Izan ere, txorierritarrok, eskualdea zigortzen duen gune-banaketa berriaren ondorioz, beste bidaia bat ordaindu behar dugu trenetik atera eta metroa hartzeagatik. Kukullaga-Matikotik datozenek, berriz, ez dute garraio-aldaketarik ordaindu behar". Bestalde, aipatu dute 2013. Urtearekin alderatuta (1,6 milioi bidaiari), gaur egun bidaiari gutxiagok erabiltzen dutela hirugarren linea: 1,2 milioiok.

Euskaraldian izena ematea

Euskaraldia egitasmoak hizkuntza ohituretan eragitea du helburu, eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte egingo da Euskal Herriko hainbat herritan. Hamaika egunetan, beren ohiko harreman sareetan euskaraz aritzeko gonbidapena egingo zaie herritarrei, inertzia apurtu eta euskararen erabilera bultzatzeko. Herritarrek Ahobizi edo Belarriprest izango dira. Ahobizi ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egiten dieten lagunak dira, baita ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egiten dietenak ere. Belarriprest, berriz, gutxienez euskara ulertzen duten kideak dira, gainontzekoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatzen dietenak.

Txorierriko batzordeak buru-belarri dabilta lanean, eta Zamudion eta Lezaman, esaterako, deia egin dute egitasmoan izena emateko. Zamudion hitzordu hauek ipini dituzte: azaroaren 3an eta 4an, 12:00-14:00, Azokan; azaroaren 10ean, 18:00-17:00, Kultur Etxean; eta azaroaren 11n, 18:00-19:00, Plazako karpn. Lezamarrak azaroaren 7an edukiko dute hitzordua, 16:00etan, eskolan.



**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

**TABERNA
GAZTE**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Premiazko neurriak hartzeko eskatu da Madrilen, putreen arazoa konpontzeko

Urriaren 25ean, Loiu, Sondika, Derio, Zamudio eta Lezamako alkateak batu ziren Trantsizio Ekologikorako Ministerioko Biodibertsitate eta Ingurumen Kalitateko ordezkariekin Madrilen. Bileran Erandioko alkateak eta Senatuko EAJ-PNV taldeko ordezkariak ere hartu zuten parte. Azkenaldian gero eta putre gehiago ikusten dira aireportuko inguruetan, eta maiztean animalia baten eta hegazkin baten arteko talka izan zen Zamudion; eta uztai-lean, beste bat Getxon. Batzarrean, Txorie-rriko alkateek adituen talde batek arazoa berehala aztertzeko eskatu zuten, horrela premia-azko neurriak hartu ahal izateko.

Prentsa-ohar baten bidez jakinarazi zuten moduan, bilera "onuragarria" izan zen, eta hirugarren aldiz eskatu zuten premia-azko neurri zehatzak hartzeko, "hegaldien eta, ondorioz, herritarren segurtasuna bermatzeko beharrezkoak direnak". Horrela, Loiuako aireportuko Fauna-batzordearekin eta Hegazti Handien Lantaldearekin aztertutako proposamenak eta eskaerak eraman zituzten Madrilera: besteak beste, azterketa zientifiko zehatza egitea, hegaztiak hegaldiei ekar diezazkieketen arazoei aurre egiteko; aire-zirkulazioaren eta inguruetako auzokideen segurtasuna bermatzen duten berehalako neurriak hartzea, eta putreei jarraipen-sistema bat ipintzea, euren patroiak eta



ezagutzeko. Beste aireportu batzuetan aurrera eramandako lan-lerroak ere ezarri ziren, zeinak Fauna-batzordeari eta administrazio eskudunei helaraziko baitizkiete.

Ministerioaren parte-hartzea

Azaldu zutenaren arabera, beste behin eskatu zuten administrazio publikoen arteko koordinazioa egoteko. "Sustapen Ministerioak ere onartu behar du bere erantzukizuna, arazoa beste autonomia-erkidego batzuek ere badutelako". Alkateek ENAIREri "aireko nabigazioaren Estatuko kudeatzailea" ibilbideren bat berrikusi edota aldatzeko proposamena egin zioten, talkak ekiditeko, eta aukera

hori Ministerioako ordezkariari ere helarazi zieten urriaren 25eko bileran. Era berean, Ministerioari parte-hartze handiagoa exijitu zioten, "hegaztiak biltzen diren lekuak eta hegazti handien migrazio-bideak gaurkatzeko, eta, horrela, benetako datuak izateko eta aireportuak duen informazioa handitzeko". Bestalde, alkateek bat egin zuten pilotuen eskaerarekin, hegazti arris- kutsuen presentzia denbora errealean jakinarazten dien sistema bat ezar dadin.

Alkateek esan zuten lanean jarraituko dutela, "harik eta erakunde eskudunek gu- re auzokideen segurtasuna bermatzen du- ten neurriak eta konponbideak aurkezten dizkiguten arte".

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa
Tuztuen etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48160 Derio
Telefona eta faxa
94 454 44 98
a.amondarain@euzkadi.net

Abelino Arraindegia
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

Peñasko arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

PATXI KOOP
FAXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nondar pabilgoa - Oteazu 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 507 - info@paxi.coop - www.paxi.coop

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA
Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA
Aretza doktorea, 11.-1. edk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322
Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370



Evarista Meabe eta Edurne Lekanda | Ibiltari adoretuak

Alargundu eta Evarista eta Edurne bakarrik geratu ziren etxean. Denborari aurre egiteko, kirola egitea erabaki zuten. Eguraldiak uzten dienean, 94 eta 89 urteko andreak lau kilometroko ibilbideak egiten dituzte Derioko Landabarri, Bidebarri, Errekalde eta Larrauri auzoetatik zehar. Bendejera eta mirabea izan direnek gai asko jorratzen dituzte pausuz pausu bizkaieraz: herriko nondik norakoak, antzinako bizimodua... eta nola ez, eguraldia.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Iraganari eta orainari bista, hankak eta mingaina ez dabiz erdizka. Gu zuen pausoeri segika gabiz ta mosu bana Edurne eta Evarista!

Itallen Bertso Eskola

**NEURTU
ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA**

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

**BETE ZURE
AUTO-DIAGNOSTIKOA**



bai
euskarari

baieuskarari.eus
/baieuskarariziurtagiria
@baieuskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

enviser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

“Memoria historikoa ez da iraganaz mintzo, orainaldiaz baizik”

PACO ETXEBERRIA | auzitegi-medikua

“¡Nunca más! Imágenes de guerra (1936-1939)” erakusketaren haritik, forentsea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Sondikara hurbildu da hitzaldia ematera. Memoria historikoa eta bere lana eduki ditugu hizpide berarekin.

t: Itxaso Marina

Memoria historikoa lantzen den herria...

XXI. mendeko herria da, balio demokratikoak politika arloko beste gai batzuen gainetik ipintzen dituen.

Estatu espainiarraren kasua da?

Ez, diktadura frankistaren biktimen eskubideak betetzea saihesten dabiltzalako. Ereduzko trantsizio baten argudiopean, hil zituztenak ez ezik horien senideak eta beste errepresaliatu asko ere utzi dira areketan.

Gerran, guduetan, hil zirenetik aparte, uste da beste 100.000 lagun hil zirela.

Horietako asko gizateriaren aurkako delituak izan ziren, biktimak ez zituztelako inongo erregistro zibiletan erregistratu, eta modu klandestinoan lurperatu zituztelako. Memoria historikoari lotutako mugimendua haiengatik hasi zen. Bestetik, Nazio Batuek oso ildo zehatzak ezarri ditu 36ko gerraren testuinguruan zein beste herri batzuetan izan diren hilketei buruz: beti iker-tu behar dira, egia ezagutzeko eskubideak ez duelako inoiz preskribatzen.

Estatu espainiarrean 2.300 hobi baino gehiago daude; horietatik 500 ireki dira eta 8.000 gorpu baino gehiago aterra dira lurpetik. Zelan bizi dituzue momentu horiek?

Hurreratzea ikuspegi tekniko batetik egin behar da beti, eta jarrera objektibo eta inpartzial batetik. Gertatzen dena hau da: objektiboa eta inpartziala izan nahi duzun arren, ez duzula nahi neutrala izan; eta are gutxiago giza eskubideei buruz ari garenean. Gainera, biktimek eskubideak badituzte, horrek esan nahi du gizarteak eta agintariak betebeharrak dituztela, eta nik ezin dut dagokidan erantzukizuna baztertu. Baina gero, hobia irekitzen denean, senideak dira “hezurrari mamia” ipintzen diotenak, eta sentimendu asko azaltzen dira. Orduan ulertzen dugu egiten gabiltzan alderik garrantzitsuena irizpide humanitarioei dagoela lotuta.

Irekitako 500 hobi horietatik bi alde frankistakoak izan dira. Momentua modu berdinean bizi da?

Bai. Alde batetik, metodologia berbera erabiltzen da; eta bestetik, familiako tragediara hurbiltzen zarenean, badaude



gauza batzuk berdin-berdin funtzionatzen dutenak. Hala ere, egia da biktima batzuek erakundeen aitortpena dutela, diktadurak berak eman zielako, eta besteek ez dutela inoiz aitortpen hori eduki, nahiz eta orain sensibilitate handiagoa duten agintari demokratikoak hasi diren biktima horiek aintzatesten.


Biktima guztiak dira berdinak?

Batzuek ulertzen ez badute ere, biktima guztiek eskubide berberak dituzte: egia ezagutu dadila, justizia egin dakizkiela eta kaltea ordaindu dakizkiela. Aintzat hartu ez diren eskubideei eman behar diegu erantzuna. Hori ulertzen dugunean, konturatzen gara memoria historikoa ez dela iraganaz mintzo, orainaldiaz baizik. Gu ez gabiltza itsututa iraganean gertatu zenaren zehaztasunarekin; guk geure buruari galdetzen diogu erantzuna eman ez zaion eskubide horrek orainaldian zer adierazten duen.

“Hil zituztenak ez ezik horien senideak eta beste errepresaliatu asko ere utzi dira areketan”

“Hilketak beti ikertu behar dira, egia ezagutzeko eskubidea ez delako inoiz preskribatzen”

“Niregan eragin handiena eduki duen kasua Lasa eta Zaballarena izan da, ziur asko”



Espainiako gobernuak Francoren gorpua Erorien Haranetik urtea amaitu baino lehen ateratzeko asmoa du.

Hiru argudio daude Franco handik ateratzeko. Lehena da mausoleo hori gerran hil zirenentzat eraiki zela, eta Franco ez zela gerran hil. Bigarrena da Zapateroren gobernuan osatutako adituen batzordeak adierazi zuela, lekua berriro definitu eta bere sinbologia frankista edo faxista aldatu nahi bazen, lehenengo eta behin Franco handik atera behar zela. Eta hirugarrena da iaz, Madrilan, Parlamentuak hala erabaki zuela. Gaur egun ez da ulertzen hain desgrazia handia eragin zuen pertsonaren gorpuzkiak eraikin publiko batean gordetzea. Familiari dagokio nora eramango duten erabakitzea, baina ezin da herritar guztiona den leku batean egon.

Lekua berriro definitzea aipatu duzu. Posible da hori?

Nik ez daukat horretarako prestakuntzarik, eta batzuetan pentsatzen dut oraindik ez dela jaio lekua erabat aldatzeko gai den aditurik. Izan ere, faxismoen monumentaltasuna du, Espainia artean hondamenditik atera ez zela altxatu zen, eta presoek eraiki zuten. Ezaugarri horiek guztiek zail egiten dute tokiaren sinbologia aldatzea. Baina, hala ere, azaldu

beharra dago. Hau da, beste herri bateko bisitaria ezin da Erorien Haranetik irten hori zergatik eraiki zen jakin barik.

Saharan aritu zara, Victor Jararen, Ruth eta Jose anaia-arreben hilketaren argitzean... Kasu batzuek beste batzuek baino eragin handiagoa izan dute zuregan?

Atzera begiratzen duzunean, bai. Hala ere, lanean zabiltzanean dena modu berdinean egiten duzu, inozentzia puntu batekin ere bai, eta kasuak eduki dezakeen oihartzuna kontuan hartu barik. Esate baterako, Salvador Allenderen heriotza dela-eta, mundu osoko kazetariak eduki genituen aurrean. Niregan eragin handiena eduki duen kasua Lasa eta Zaballarena izan da, ziur asko. Azken batean ikusten genuen oso gauza larriak gertatzen ari zirela: Estatuko agintariak eta indarrak, diru publikoa eta funtzionarioak erabilita, beste estatu subirano batera joan ziren, han bizi ziren pertsonak bahitu zituzten, hona ekarri zituzten, torturatu egin zituzten, hil egin zituzten eta desagerrarazi zituzten. Hori gertatu zen eta frogatu ahal izan genuen. Gero, beste kasu asko ere badaude, komunikabideetan atera ez direnak, baina zuregan eragin handia eduki dutenak, adibidez, txarto argitu dituzulako edo argitzea ko gauza izan ez zarelako.

Ez ahaztea

Larrabetzu memoria historikoaz arduratuta dabilen herria da eta bertan, Etxeberriak esan duen moduan, badago jendea ez ahaztea erabaki duena. BHK Karraderan elkarteak aspaldian dabil Burdinazko Hesiaren aztarnak ikertzen eta 2015ean hitzarmen bat sinatu zuten Udalarekin eta Aranzadi Zientzia Elkartarekin. Handik hona lau borrokalarien gorpuzkiak atera dira lurpetik eta kaskezur bat topatu da. "Tokiak, protagonistak... ezagutzen dituzten pertsonen laguntza barik guk ezin izango genituzke gauza asko egin. Abantaila handia da guretzat eta haien esfortzua eskertu eta aitortu behar da".

Azaldu duenez, Euskal Autonomia Erkidegoan memoria historikoari lotutako politika publiko bat egoteak, eta agintariak eta erakundeak hasieratik adierazitako jarrera onak asko erraz-

"Herritarren esfortzua eskertu eta aitortu behar da"

ten dute euren lana. Gogora institutua horren isla da. "Honek guztiak testigantzak jasotzea ahalbidetzen digu, artxibategietan arakatzea, gorpuek lurretik ateratzea... Beste leku batzuetan ez dago ezer, ez nora jo, ez nori galdetu... Nazio Batuen errelatoreak beti aurpegiatzen dio Espainiari gai honekiko duen gelditasuna; salbuespena, Euskal Autonomia Erkidegoa da".

Sanchezen gobernuak Memoria Historiko Zuzendaritza sortu du eta, Etxeberriaren ustez, oso pertsona egokia aukeratu dute zuzendari: Fernando Martinez Lopez, besteak beste, Historia Garaikideko katedraduna eta memoria historikoan aditua dena. "Oraindik ez dakigu zein erritmotan eta zein aurrekonturekin, baina ideia batzuk daude eta egin daitekeena pozgarria da, hala nola hobien mapa gaurkotzea, desagertuen errolda ofiziala egitea eta DNA bankua sortzea".



Kontxa amets

IZARO LEZKANO PEREIRO | arraunlaria

Larrabetzuko arraunlariak gogotsu ekingo deutso denboraldi barriari. Kadete kategorian eta *doble skull* modalitatean lortutako Bizkaiko eta Euskadiko txapelak berrestea dau helburu, baita Espainiako txapelketan emaitza hobea izatea be. Hori guztia arraunketaz denak emonda disfrutatuz egingo dau.

t/a: Itxaso Marina

Izarok 15 urte dauz eta arraunketan orain dala hiru urte hasi zan. Aita Barakaldokoa da, Kaiku Sestaoko klubaren zalea, eta estropadak oso hurbiletik bizi izan dabez betidanik etxean. Gainera, aitaren osaba bat be Castroko Arraun Klubean ibilia da, patro. "Estropadak ikustera joaten ginan eta neuk be probau gura izan neban". Kaikun hasi zan eta hor jarraitzen dau. Gustura. "Lehenengo urtean eduki nebazan entrenatzaileak oso onak izan ziran eta hareek irakatsi eusten arraunean ondo egiten eta kiroltasuna zer dan. Ki-deakaz be eduki dot zorte handia, lagun moduan zein kirol arloan".

Arraunketan hasi eta asko gustatu jakon. Eta egia esan, asko gustatu behar jako, ia egunero Larrabetzutik Sestaora joateko, eta gero alderantzizko bidea egiteko. "Oso kirol gogorra da eta konpromisoa hartzen badozu, horri eutsi eta egunero entrenatu behar dozu. Estropada denporaldia ez danean, aste barruan hiru egunetan eta asteburuan egun baten egi-



ten dogu entrenamendua. Baina denporaldian gagozenan, bakarrik egun baten, aste barruan, hartzen dogu atsedena. Asteko gainerako egun guztietan entrenatu behar dogu". Aurre-denporaldian korrika, ergometroa eta ariketen taulak egiten dabez, eta urtariletik aurrera uretera urteten dira. "Batelean ateraten bagara, Sestaotik, Barakaldotik eta Bizkaiko zubitik ibiltzen gara. Santurtziraino be joaten gara. Baina banku mugikorra egiten dogunean, Bilbo

aldera joaten gara, ura bare egotea behar dogulako. Itsasadarretik ordubete inguru egiten dogu".

Kirol gogorra eta sakrifkatua da arraunketea. Hori ondotxo daki gazteak. "Denpora asko kentzen deust. Ikasteko, esaterako, ze etxetik arratsaldeko 4:30ean urteten naz eta gaueko 9ak arte ez naz bueltatzen. Afaldu eta oso nekatuta na-goala etxerako lanak egin behar dodaz, ikasi... Eta asteburuetan gauza bera. La-

Emakumezkoen trainerura sartzea gustatuko litxakio, "azken batean, gurea banku finkoa da"

gunakaz egoteko denporea be kentzen deust, eta familiak nire atzetik ibili behar dau planak egin ahal izateko. Era berean, kontuz ibili behar dot janariagaz...". Halanda guztiz be, bere esanetan, sakrifizio hori guztia egitea merezi dau. "Bai horixe!".

Eta sakrifizioak bere saria badau, igaz, Haizea Casamayor Milego kideagaz bate-ra, urrezko domina lortu zuelako Bizkai-ko eta Euskadiko txapelketetan, kadete kategorian eta *doble skull* modalitatean (banku mugikorra). "Pozik nago emaitzakaz. Nik kadete kategorian jarraituko dot, baina Haizea gazte kategoriara igoko da eta, ondorioz, kide barriategaz arituko naz. Ea zelan moldatzen garen! Edozelan be, helburua da titulu horiek berrestea eta Espainiako txapelketan barriro sartzea. Aurten laugarrenak lotu gara".

Kaikuk emakumezkoen trainerua osatu dau aurreko denboraldian eta larrabertzuarri hara sartzea gustatuko litxakio. "Asko. Azken batean, gurea, bertokoa, banku finkoa da. Gu bateletik trainerillara pasatzen gara, eta gero trainerura. Gazte kategorian zagozala hasi ahal zara traineruan arraun egiten, baina normalean senior kategorian egon behar da han aritzeko". Azaldu deuskun moduan, batelean ekainaren hasiera arte ibiltzen dira kadete kategorian; eta gero, uztailan eta abuztuan, banku mugikorra egiten dabe.

Arraunlari saiatua

Maiatzean, Emakumeen Traineruen Elkarte sortu zan eta horren barruan 14 klub dagoz; Kaiku, horreen artean. Emakumeen traineru lehiaketak arautzearen beharrak bultzatu ditu alkateta sortzera, emakumeek arraunean abotsa eta baliabide duinak eduki dagiezan. Arraunlariek EuskoTren Ligan parte hartzen jarraituko dabe, baina liga horretan sartzen ez direnek bigarren mailako liga baten aritzeko aukerea izango dabe. Izaroren eritxiz, emakumeen kirola bultzatzea helburua

daukien egitasmoak beharrezkoak dira. "Kirolean ez dagoalako gizonen eta emakumeen arteko bardintasunik. Nahiz eta arraunketan gauzak apur bat hobeto egon. Aurten, adibidez, gizonezkoek eta emakumezkoek diru-kopuru bera kobratu dabe Kontxako Bandera irabazteagaitik. Baina gogoratzen dot, haur-kategorian nengoala, bigarrenak lotu ginala Euskadiko txapelketan, batel modalitatean, eta horrek txartelea emoten euskuela Espainiako txapelketara joateko. Ezin izan ginan hara joan, gure kategorian emakumezkoen txapelketarik ez zalako antolatu; gizonezkoena, bai, ordea. Txapelketa ez antolatzeke, guk ez genduala indar nahikorik erabili eben aitzakiatzat. Ez jat ondo iruditzen".

Bardintasun arloan asko hobetu behar bada be, orain dala urte batzuk baino hobeto ikusten dau emakume arraunlarien egoera. "Maila handia dago, baina klub baktxaren baliabideek be eragin handia daukie horretan. Baita entrenatzaileak zer eta zelan irakasten deusun be". Bera arraunlari saiatua da, gogotsu lan egiten dauana eta entrenatzailearen azalpenei

eta zuzenketei kasu egiten deutsena. Etorkizunari begira, traineruan sartu eta Kontxako Banderan lehiatzea gustatuko litxaioke. "Irabaztea ez dakit, hori beste kontu bat dalako. Baina parte hartu sikiera... Ze oso polita da. Gero, banku mugikorrari jagokonez, munduko txapelketak be badagoz...".

Bitartean, Kaikun jarraituko dau. Han gustura dagoalako eta bat egiten dau alako Sestaoko klubaren harrobi-filosofiagaz. "Animatu gura dot jentea aurraunean egitera eta Kaikura etortzera. Kirol gogorra da eta asko sakrifikatu behar da, baina oso ondo pasatzen da eta oso gauza polita be bada".

"Maila handia dago, baina klub baktxaren baliabideek be eragin handia daukie horretan"





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Laralde Heziketa eta Irigamen Ikasturteak

Unibertsitatea Kalea, 1
48180 - DERIO

Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



AENOR
Garbieria
Garbieria
Garbieria



HERRI ONURAKO
KOOPERATIBA DE
UTILIDAD PÚBLICA



ikastolenelkartea



HETEL

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

Goizeko 9etatik arratsaldeko ordu biak arte, enplegu-erakunde eta enpresekin harreman zuzena izateko aukera izango dute gazteek. Horrez gain, etengabeko prestakuntzari buruzko informazioa jasoko dute, eta gaitasunak nahiz trebetasunak curriculumean nola islatu ikasiko dute.

Azokak hiru gune izango ditu: Iparragirre aretoa, Atrioko gunea eta Euskadi aretoa. Bertan, enpresen aurkezpenak eta hitzaldiak, mahai-ingurua eta enpresa kolaboratzaileen standak egongo dira. Lehen hitzaldia Ainhoa Oar orientatzaileak emango du eta nazioarteko hezkuntza- eta lan-orientazioari buruzkoa izango da. Geroago, 10:00etan, ongietorri ofiziala egingo da. Ongietorria Txorierriko Mankomunitateko buru den Igotz Lópezek eta Bizkaiko ahaldu nagusiaren kabineteko Jonatan Morenok egingo dute.

Egunean zehar, mahai-inguru bat egongo da, "Sektore estrategikoen araberako lan-merkatuaren azterketa" izenekoa. Luis Madariagak, Ana Arenaza Santos eta Maria Larrinoak, Gaiker, Ibermatica eta Ingeteam enpresen giza baliabideetako zuzendariak hurrenez hurren, hartuko dute parte bertan. Aldi berean,

II. Enplegu Azoka

Txorierriko Mankomunitateak, Erandioko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, EGAZ Txorierriekin batera, Txorierriko bigarren Enplegu Azoka antolatu dute azaroaren 9rako, Derioko Kultur Birikan. Ekimena Gaztedi Bizkaia planaren barruan dago, eta helburu hau du: enpresen eta lana bilatzen ari diren, edo haien ibilbide profesionalaren norabidea aldatu nahi duten gazteen arteko topalekua sortzea.

aurkezpen hauek izango dira: Iddtek (10:15), Lanbide (11:15), Matrici (12:15) eta We Bring (13:15).

Lehen edizioan egin zuen moduan, Igotz López Mankomunitateburuak, gazteak animatu ditu "enpresei galdeztera, haiekin harremanetan egotera eta enpresekin kontaktu zuzena izateko aukera aprobetxatzera. Txorierriko Enplegu Azoka aukera ezin hobea da merkatua ezagutzeko eta eskualdeko erakundeek zer-nolako profil profesionalak bilatzen dituzten jakiteko", azpimarratu du.

Txorierriko Enplegu Azokaren bigarren edizioan 13 stand egongo dira, batzuk Matrici, Ingeteam, We Bring edo Iddtek bezalako enpresenak, beste batzuk Egaz Txorierri bezalako erakundeak, eta beste batzuk Politeknika Ikastegia bezalako ikastetxeak. Hauek ere izango dira bertan: RDT Ingenieros, SGS Formación. Lontana, Naguspea, Bizia Fundazioa, Ibermatica eta Gaiker.

Lehen edizioaren arrakasta

Azokaren lehen edizioan, joan den urteko azaroan, 1.500 gazte baino gehia-

Txorierri Euskaraldiarekin bat

Txorierriko sei herriek bat egin dute Euskaraldiaren egitasmoarekin. Horretarako, azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean herritarrek Ahobizi eta Belarriprest izatera gonbidatzen ditugu. Txorierriko euskaraz ulertzen duten pertsonak pentsatzen duguna baino askoz ere gehiago gara, eta hau kalean islatu behar dugu; hori ikusaraztea da orain daukagun erronka. Hizkuntza ohiturak aldatu behar ditugu eta konturatuko gara uste duguna baino errazagoa dela euskaraz hitz egitea.

Herriz herri, talde, elkarte eta herritarrek batzordeak antolatu dituzte Euskaraldia herri bakoitzaren errealitatera egokituz eta euskararen alde egotetik euskara egitera eman beharreko urratsak errotzeko.





*Enpresen eta lan bila
dabiltzan gazteen
arteko topalekua
izango da*

*Azokan 15 enpresak
eta erakundeak
baino gehiagok
hartuko dute parte*

go bertaratu ziren hitzordura, lan-aukera baten bila edo ibilbide profesionalaren norabidea aldatzeko asmoz. Edizio hartan 17 enpresa eta erakunde egon ziren, eta standetan gazteen curriculumak jasotzeaz gain, haiekin hitz egin zuten euren kezka eta beharrei buruz.

Horrez gain, "Sektore estrategikoen araberrako lan-merkatuaren azterketa" mahai-ingurua egin zen; bertan, taldean lan egiteko gaitasunaren eta aldaketetara egokitzeko gaitasunaren garrantzia azpimarratu zen, baita prestakuntza berezituaren eta hizkuntzen garrantzia ere.

Azaroaren 23ra bitartean herriko batzordeak, aurkezpenak, ekitaldiak, izen-emateko tokiak eta formakuntzak antolatzen ari dira, besteak beste. Txorierriko herri guztietan hamaikakoak antolatu dira. Herriz-herriko hamaikakoez gain, Txorierriko ere, eskualde mailan, ekimenaren enbaxadoreak ditu modu pertsonalean eta euren borondatez ekimenaren alde aurkeztu direnak. Eguzkiñe Carballo eta Olatz Santiago derioztarrak, Iñaki Suarez eta Aitor Santxo larrabetzuarrak, Aitor Benegaz eta Marian Rodriguez lezamarrak, Kepa Arriaga eta Nerea Revilla loiuztarrak, Naiara Gonzalez eta Deñe Sarria sondikoztarrak eta Lorena Dominguez eta Iranzu Erauzkin zamudioztarrak.

Izen-ematea zabalik dago eta bi aukera ezberdin daude horretarako: online bidez, www.euskaraldia.eus atariko formularioa betez, eta herrietako batzordeek azaroan zehar jarriko dituzten mahaien bidez.



BERDINTASUNA

HITZALDIA

INDARKERIA MATXISTA ETA ANIZTASUN FUNTZIONALA

HIZLARIA IZASKUN JIMÉNEZ

GUTXITASUN FISIKOA EDOTA
ORGANIKOA DUTEN PERTSONEN
BIZKAIKO FEDERAZIO
KOORDINATZAILEA



NON

Derioko Kultur Birika

NOIZ

Azaroaren 15ean

ORDUA

19:00 - 20:30

TXORIERRIKO MANKOMUNITATEKO UDALAK

DERIO | LEZAMA | LOIU | LARRABETZU | SONDIKA | ZAMUDIO

www.txorierri.eus

Antolatzailea | Organiza:



TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA

Pinua gaixorik dago

Banda marroia/gorria gaixotasuna gogor erasotzen dabilkie pinuei. Horrela, gure autonomia erkidegoan, gaitza 40.000 hektareara baino gehiagora zabaldu da; 3.151 hektareara, Txorierrin. Gure orografiaren berdea marroiz tindatzen hasi da, onddoek pinuak sikatzen dituztelako. Erritmo handian, gainera.



t: Itxaso Marina eta Jon Goikouria / a: J.G.

Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, 2016an 130.000 hektarea *pinus radiata* zeuden Euskal Herrian; eta 65.000 hektarea, Bizkaian. Pinudia bizimodua ateratzeko bidea da baserritar askorentzat, izan ere, industria horrek zuzeneko 13.000 lanpostu eta zeharkako 7.000 lanpostu sortzen ditu gaur egun, gure autonomia erkidegoan. Baina baso gehienetan ikusten dugun pinu mota hau ez da bertokoa. Adan Ayarza lekeitiarrak XIX. mendean

ekarri zuen Kaliforniatik. Industria arloko gehiegizko ustiatzea dela-eta, euskal mendiak hustuta zeuden eta espezie hori erraz egokitu zen gure klimara. Lehen-gai preziatua bihurtu zen, epe laburrean etekin handia sortzen duelako. Batez ere hiru erabilera mota ditu pinuaren egurrak: adarrak papera egiteko erabiltzen dira; enborrharen erdialdea, enbalatze ontziak egiteko; eta enborrharen oinarria, zurgintza eta ebanisteria-lanetarako.

Onddoen eraginez, *pinus radiata* gaixorik dago eta bere gaitzaren ondorioak

ikusgai daude Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako basoetan. Bizkaiko Foru Aldundiak uztaillean egindako azterketaren arabera, gaitzak gure lurraldeko 16.000 hektareari egin dio eraso. Eta Bizkaiko Basogintza Elkartetik jakinarazi diguten moduan, gure eskualdean 8.584 hektarea pinu daude eta gaixotasunak 3.151 hektarean dauka eragina; hau da, hektareen % 36,71n. "Pinu guztiek ez dute gaitz-gradu berbera: batzuk siku daude jadanik, baina beste batzuek oraindik ez dute gaitzik. Eta gaixotasunak maila ezberdinetan ha-



Gure eskualdean 8.584 hektarea pinu daude eta gaixotasunak 3.151 hektarean dauka eragina

Airetik oxido kuprosoa bota daitekeen albisteak kezka sortu du herritar eta talde ekologisten artean

Natura errespetatzen duten basoak garatzean egon daiteke irtenbidea, aditu batzuen ustez

Lezama Bizirik elkarteak proposamen bat aurkeztuko du, herriko baso-politika berriz aztertzeko

dira eta egurra lortzeko landatu eta moztu egiten dira. Ereduek horrek gizakiari etekina ekarri arren, mina egiten dio lurrari.

Monolaborantzaren ondorioa

Aipatutako monolaborantza-sistemaren ondorioz, lurra erabat eraldatu da eta gaur egun ez da elikagai ona zuhaitzetarako. Era berean, ura kudeatzeko ahalmen gutxi du. Hori dela-eta, zuhaitzak ez dira behar moduan elikatzen. Bertoko zuhaitzek udazkeneko botatzen dituzte hostoak. Onddoek eta bakterioek hostoak deskonposatzen dituzte eta lurreko buztin naturalarekin nahasten dira, humus-buztina sortuz. Harrek humus-buztin hori jaten dute eta digeritu ostean lurpean botatzen dute. Karbonoaz gainera, zuhaitzak materia organiko horren mineralak elikatzen dira. Pinuek, berriz, hiru edo bost urterik behin botatzen dituzte hostoak eta horrek zaildu egiten du lurreko organismoek deskonposizioa egin ahal izatea. Pinuen hostoak lurpean metatu eta ezkoz estaltzen dira, kanpoko klimatik babesteko. Hortaz, pinudiak ez daude behar moduan elikatu eta hidratatuta, eta ezin diete kanpoko mehatxuei aurre egin. Zuhaitzak moztu eta batzeko erabiltzen den sistema ere ez da lagungarria, makina astunak lurreko begetazioa suntsitzen dutelako.

Hiru dira Euskal Herriko pinuei erasotzen dabilzkien onddoak: *Dothistroma septosporum*, *Lecanosticta acicola* eta *Dothistroma pini*. Baserritarrek eta erakundeak kezkatuta daude, eta Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako

Foru Aldundiekin batera, gaitzari aurre egiteko jarduketaren plan bat ipini du martxan, hiru ardatz nagusi dituenak: gaitzari eta horrek baso eremutan eragiten dituen kalteei buruzko ezagutza sortzea; gaitzari aurre egiteko neurriak zehaztea; eta sektorea berreskuratzea.

Bigarren ardatzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek Espainiako gobernura bideratu dute eskaera bat, oxido kuprosoa erabilita aireko tratamendua egin ahal izateko. Azaldu dutenaren arabera, tratamendu hori eraginkorra izan da beste leku batzuetan, zeinetan antzeko onddoek zuhaitzei erasotzen baitzioten. Gaixotasunarekiko erresistenteak diren landareak ere inportatuko dira, prebentzio neurriak indartuko dira eta halako kasuetan gomendatzen diren basogintzako praktikak bilduko dira gida batean. Bestalde, Foru Laguntzen Planak indartuko dira, larri kaltetutako zuhaitzak mozteko eta basoberritzeko. Izapide administratiboak erraztu eta arinduko dira horretarako, eta tratamenduak egiteko beharrezko azpiegitura tekniko-administratiboa emango da. Lehentasunezko ebaketak egiteko eremuak eta gaitza hedatzea saihesteko ebaketa-eremuak aukeratzeko dira, eta ebaketa zura gordetzeko guneak atonduko dira, apurka-apurka saldu ahal izateko. Sektorea berreskuratzeari lotuta, gaixotasunarekiko erresistenteak diren eta, merkataritzaren ikuspuntutik, sektorearentzat interesgarriak diren espeziekin egingo dira saiakuntzak, eta jatorri baimendua duten haziak erabiltzea sustatuko da. Foru

rrapatu ditu beste batzuk. Zuhaitz batzuk gaitzari aurre egiteko gai izango direla espero dugu”, aipatu du Jabi Gezuraga Uriarte teknikariak.

Zergatik gaixotu dira pinuak? Keko Alonso biologoaren eta Kolore Guztietako Basoak plataformaren kidearen arabera, basoak paisaia biziak dira, eta bertan espezie askotariko zuhaitzak eta beste animalia mota batzuk bizi dira, ekosistema harmoniatu batean. Pinudiak, oster, kanpotik ekarritako zuhaitzak izateaz gainera, monolaborantza-ereduaren emaitza



mendietan landaketa esperimentalak egiteko proiektuak ere diseinatuko dira.

Kudeaketa birbideratzea

Gaixotasunari aurre egiteko, airetik oxido kuprosoa bota daitekeen albisteak kezka sortu du biztanleen artean. Gezuragak lasai egon behar dugula esan digu, eta zuhurtziaz jokatu. "Europar debekatuta dago airetik fumigatzea, nola eta egoera larria ez den. Lehenengo eta behin ikusi behar dugu airetik fumigatzeko baimenik lortzen den; eta bigarrenaz, azkenean oxido kuprosoa edo beste fungizida bat erabiltzen den. Edozelan ere, airetik fumigatzen bada, ez da Euskadin kaltetuta dauden hektarea guztietan egingo; eremu txiki bat hartuko da eta probak egingo dira bertan. Gainera, fungizida airetik botatzen bada, produktua zuhaitz bakoitzaren gainean eroriko da, eta horrek ez du lurra ukituko". Beste alde batetik, gogora ekarri digu oxido kuprosoa nekazaritza ekologikoan eta mahastizaintzan erabiltzen dela, basogintzan debekatuta dagoen arren.

Alonsoren iritziz, fungizida berezi gabek hartuko da, eta pinuei gaixotasuna eragiten dieten onddoak ez ezik zuhaitzeta-

Gaixotasuna geldituko da neguan, baina, neurririk hartu ezean, izurritea berriro zabalduko da udan

rako onuragarriak diren onddoak ere hilko ditu, esaterako sustraietan daudenak, landareari beste kalte bat ekarri. Biologoaren esanetan, ezin da ziurtatu fungizida zuhaitzen hostoetan geldituko dela. "Eurria ari badu, barbarako, euri-tantek lurrera botako dute fungizida eta, ondorioz, uretako ekosistemak kaltetuko dira". Banda marroi/gorria gaitza orain guztion ahotan badago ere, Alonsok aipatu digu duela urte batzuk hasi direla pinudietan arazoak sumatzen, eta pinuak astiroago hezten direla. "Alternatibatzat beste zuhaitz espezie bat hartu baino lehen, atzera begira hausnarketa egin beharko genuke orain arte eutsi zaion baso-ereduaren gainean. Pentsatu behar dugu gure seme-alabei zein nolako basoak utzi nahi dizkiegun". Horri lotuta, baso-kudeaketa birbideratzea

ezinbesteko jotzen du, baita, monolaborantza sistemaren ordez, dibertsitatean oinarritzen den baso-eredu bat sustatzea ere.

Lezama Bizirik elkarteak iritzi berekoa da eta datozen egunotan proposamen bat egingo diete udaleko osoko bilkura osatzen duten alderdi biei, herriko basoetan ezartzen den baso-politikaren irizpideak berriz aztertu ditzaten. Izan ere, azaldu duten moduan, baso-kudeaketaren haritik Bizkaiko Foru Aldundiak eta Lezamako Udalak duten hitzarmena datorren urtean berritu behar da. "Ez dugu pozoia erabilita gu fumigatzea nahi. Gaur egun dugunaren moduko arazoak saihesteko, ordea, baso-politika zuzentzea nahi dugu, eta biodibertsitatea eta bertoko basoa sustatu daitezela". Era berean, Udalari eskatuko diote Lezamako basoetan oxido kuprosoa erabilita fumigatzeko baimenik ez emateko. Gogorarazi dute, REACH arautegian jaso den moduan, kobre oxidoa uretako organismoentzat toxikoa dela, eta ingurumenerako arrisku handia eta kronikoa dela. Hori airetik fumigatzeak "gure basoetan, ibaietan, animalengan, lurretan, etxeetan eta pertsonengan edukiko du eragina", esan dute.

Baso-ereduak

Justin Zarate Etxebarria lezamarra irtenbideen zain dago. Berak eta bere anaiak, Mikelek, 4,5 hektareako basoa dute eta hango pinu guztiak gaixorik daude. "Lurra aitak erosi zion BBK-ri orain dela 30 urte. Hasieran itsas pinua genuen, baina orain dela zazpi urte kendu genituen eta pinu radiata landatu genuen, errentagarritasuna lortzeko asmoz. Bada, pinu guztiak hasi dira sikatzten; paradoxikoki, itsas pinuak atera dira horien ondoan eta gaitzak momentuz ez die eragin". Zarateren lurren alboan beste jabe batzuen pinuak daude, zaharragoak, eta horiengan gaixotasuna ez da hain nabaria. "Gaitzak gogortasun handiagoarekin erasaten die zuhaitz gazteei. Hotzaren ondorioz, gaixotasuna geldituko da neguan, baina, neurririk hartu ezean, izurritea berriro zabalduko da udan. Gure pinuak hilda egongo dira

datorren urterako; handiagoak direnak, lau urte barru edo".

Zarate anaiak aukera batzuk aztertzen dabilta etorkizunari begira, hala nola pinuaren orde eukalipto landatzea. Baina erabaki bat edo bestea hartu baino lehen, prest daude euren lurretan saiakuntzak egiteko, gaixotasunari aurre egiteko edo, behintzat, arintzeko. "Nueva Zelanda aspalditik bizi dira gaitzarekin. Ez dute lortu desagerraraztea, baina kontrolatu dute. Bizkaian baso-jabe txikiak gara gehienok eta ez dugu baliabide nahikorik, gure kabuz egiteko; erakundeek laguntza behar dugu". Anaiak ez dute bizimodua egurren saltzen ateratzen; hala ere, dirua eta esfortzua ipini dute aitak erositako basoan. "Irtenbiderik topatu ezean, pinu guztiak moztu eta berriro hasi beharko dugu. Zaila da basoa saltzen; gaur egun ez du inork nahi". Bestalde, azpimarratu du beti daudela arriskuen menpe. "Haizea ez bada, sutea izan daiteke, edo izurritea. Iaz eta aurreko urtean, esate baterako, pinuek prozesionaria eduki zuten, gaitza gaingitu zuten arren".

Jose Antonio Lekue larrabetzuarak *pinus radiata* eduki du bere basoan orain dela gutxi arte. Baserritarra, ikuspegi ekologikotik, ez zetorren bat monolaborantza-sistemarekin, eta erabaki zuen hori alde batera utzi eta ekosistema naturalean oinarritutako baso-ereduaren alde egitea. Horrela, bada, 2.000 metro karra-tuan harmonian eta osasuntsu bizi dira bertoko espezieak, elkarrekin: haritzak, lizarrak eta ezkiak, tartean. "Guztiok gaixotzen gara, pertsonak zein zuhaitzak, baina monolaborantza-ereduak -arraseko mozketak, ustiaketa masiboak...- errazten du gaixotasunak egotea".

Lekueren ustez, natura errespetatzen duten basoak garatzea posible da eta espero du bere gaur egungo baso-eredua etorkizuneko baso osasuntsua bihurtzea. Gainera, kontuz ibiltzen bada eta naturari begirunea badiogu, baso horietatik ere kalitate handiko egurren eskuratu daiteke.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia

ASPALDIKO!

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA

2018-2019KO TALDEAK:

GOIZEZ

A1, A2, B1 eta C1
A1 Asteleheneretik ostegunera, astean 10 ordu
Astearte eta ostegunetan, astean 4 ordu

ARRATSALDEZ

A1, B1, B2
C1 Astean bi egunetan, astean 6 ordu
Astean bi egunetan, astean 4 ordu
Astean hiru egunetan, astean 7,5 ordu
Ostiral arratsaldeetan trinkoa, astean 4 ordu
Mintzamen taldea Astean bi egunetan, astean 4 ordu

AUTOIKASKUNTZA TALDEAK

ERDU GEUGAZ! EGIZU EUSKARAZ!



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrri.eu



Azken mendekua

a: Gaizka Peñafiel

Jarraikortasuna izango da aurten-go Sanmartinen ezaugarri nagusia. Izan be, jai-egitarauak nobedade gitxi dakar. "Gauza barriak egitea gustauko litxakigu, baina urtero ezin da egin: horretarako nahiko dirurik ez dogulako, proposamen barririk ez dagoalako.... Dana dala, pozik gagoz, zerbait ondo badabil eta jenteari gustatzen bajako, zergaitik aldatu?", esan deusku Manu Francisco Zamudioko Udaleko zinegotziak. Manugaz batera, hainbat lagun dabilz lanean jai ederrak prestatzeko, Eguraldi ona jai batzordean. "Herriko taldeek bat egiten dabe jaiakaz, batez be Arbolantxa Pelota alkarteak, Guraso Alkarteak, HiruBat dantza taldeak eta Zamudioko Kamara Koralak".

Ekitaldi nagusietako bat Vendetta taldearen kontzertua izango da. Naparrek musikea itxiko dabela iragarri dabe eta Zamudion emongo dabe Bizkaian eskinitako daben azken kontzertua. "Vendetta bezalako taldeek adin guztietako jentea erakartzen dabe eta aurton kontzertua lehenago izango da: 01:00ean izan beharrean, 23:30an izango da, gurasoek holan eskatu deuskuelako". Oxabi eta Puro Relajo taldeek eta disk-jockey bik –Markelin eta Paco Sanchez– osatzen dabe gaueko

San Martin jaiak azaroaren 9tik 12ra bitartean ospatuko dira Zamudion. Herriko jai nagusiak dira eta, igaz moduan, Vendetta musika taldeak aurton be eskainiko dau kontzertua berton. Saio berezia izango da, nafarrek Bizkaian emongo daben azken kontzertua izango dalako. Gainera, besteak beste, dantzek, umeentzako ekitaldiek eta azokak osatuko dabe jai-egitaraua.

musikaren eskaintza. Era berean, "Zamudio Izar" lehiaketeta eta San Martin XXX. Kontzertua be antolatuko dira. Azken horretan Tantik (Mungia), Xatz Eskifaia (Hondarribia) eta Nurat (Gasteiz) arituko dira.

Publiko gaztea oso garrantzitsua da jai-batzordekoentzat. "Azken bolada honetan, gero eta gazte gehiago inplikatzan dira jaiak prestatzeko lan-taldean. Eta hori benetan eskertzekoa da. Azken urteotan antolatu doguzan kontzertuak ez dira oso arrakastatsuak izan eta hareen ekarpenari esker, musika taldeak herriko gazteen gustukoak izan dira".

Ruben Glera

Jaietako beste protagonista bat Ruben Glera izango da, jaietako pregoia botako daualako. Rubének bitxitegia dauka herrian eta oso ezaguna da herri-

Jaietako beste protagonista bat Ruben Glera izango da, jaietako pregoia botako daualako

tarren artean. "Hainbat alkartetan dabil, Zamudio Kirol Alkartean esate baterako. Gainera, goi-mailako kirolaria da, txirrindularia, eta askotan eroaten dau kanpora Zamudioren izena. Rubenek herria daroa bihotzean eta bazan ordua hemen, bere herrian, omenaldi txiki bat eskaintzeko".

Jaiak azaroan ospatzen dira eta eguraldiak izugarri baldintzatzen dauz ospakizunak. "Egia da, eguraldi txarra egiten

PiKoteo Taberna

KAXOLAK - **OLAGARROA**
TXIPIROIAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6
48170 ZAMUDIO
689 213 789

Magalarte Txakolina

Itñaki 94 455 65 08 **Jabi** 94 452 14 31

ARETXABALETAK UZDIA ETXAKOLATIA

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

75 cl. 10,75 % vol.

**hotela
jatetxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

HORTZ KLINIKA
GANDIAGA
94 608 62 30 - 31
klinikagandiaga@euskalnet.net

- Odontologia orokorra
- Implanteak
- Ortodontzia
- PADI

Txantxangorri, 2 - lokala 1. ezk.
(sarrera Lehendakari Agirre Plazatik)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*

**LA
GA
TZU**
ZAMUDIOKO
EUSKERA
ALKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

✓ Gosariak
✓ Pintxoak
✓ Otartekoak
✓ Entsaladak
✓ Sandwichak
✓ Hamburgesak
✓ Plater konbinatuak
✓ Odolosteak

MOSAI
Taberna

**Txantxangorri, 2
48170 ZAMUDIO
94 471 83 41**

**Eramateko
janaria**

TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak

Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

CB *Ileapandegia*
Ana Belén
estetika - solariuma

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio
Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA



Ruben Glera
pregoilaria
izango da



Oxabi taldea

"Jaiak jentearentzat egiten dira. Herria, zamudioztarrak, da jaien mamia"

badau, ziur asko jente gitxiago etorriko da jaietara. Eta azaroan euri zaparradak eduki ahal doguz, edo praka motzak jantzi ahal doguz. Auskalo! Beraz, kontzertuak egiten diran gunean karpa bat jarten dogu eta aurtun Kultur Etxean be jarri gura dogu. Holan, beste areto bat lortzen dogu ekitaldiak egiteko".

Eguraldia kontuan hartzekoa da, bai, baina jai-batzarkidearen berbetan, "herriko jai nagusiak dira, Pazkoakaz batera, eta zamudioztarrak jaiak etortzeko irrikan gagoz: lagunakaz eta familiagaz egoteko momentu paregabea da. Batzuk kanpotik etorten dira bakarrik jaiak diralako. Eta guk horretarako egiten dogu lan urte osoan. Azken baten, jaiak jentearentzat egiten dira. Herria, zamudioztarrak, dira jaien mamia".

Azokea, azaroaren 3an eta 4an

San Martin jaiakaz batera, Zamudioko azokea be egingo da aurreko asteburuan, azaroaren 3an eta 4an. Limusin Euska-



diko Txapelketea 17. aldiz antolatuko da eta horrek kanpoko jente asko erakarriko dau. Gainera, Euskal Herriko nekazaritza-produkturik onenak eskainiko dira: gazta, ogia, txakolina... Asteburu horretan Txokolate, Gozo eta Artisautza Azoka egingo da seigarren aldiz. Bitartean, aditu batek artisau-garagardo dastaketea eskainiko dau, eta bisitariek beste dastaketa ba-

tzutan parte hartzeko aukerea be eukiko dabe: euskal saltxitxa, txahal pintxoa eta Zamudioko garagardoa. "Azoka oso garrantzitsua da herriarentzat, 10.000 lagun inguruk bisitatzen gaituelako. Ostalariek dinoe urteko egunik onena dala eurentzat. Eta kalidade aldetik ez dauka ia parekorik, berton dagozan produktuak ederrak diralako".

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO
Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra
Especializatea:
Xafra-lanak
Zoruak
944522910 - 665703312 - 652772016

GORBEIA MERTZERIA
Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06



Azokaren egitaraua

Azaroak 2, 3 eta 5

–20:30 Pisu libreko idi-probak, aterpean.

Azaroak 3

–VI. Txokolate, Gozo eta Artisautza Azoka.

–11:30-12:30 XVII. Bizkaiko Limusin Arrazako Abeltzarien Txapelketa.

–Artisau-garagardoa dastaketa, azalpenakaz.

–13:00 Hainbat dastaketa: euskal saltxitza, txahal pintxo eta Zamudioko garagardoa.

–17:00 Kaleko antzerkia. *Marraka*.

–18:00 Tio Teronen semeak dantza taldea, HiruBat dantza taldeak antolatuta.

Azaroaren 4an

–XXXIII. Nekazaritza eta Abere Azoka.

–XXV. Euskadiko Limusin Arrazako Abeltzarien Txapelketa.

–11:30 Idiazabal gaztai- eta txakolin dastaketa, azalpenakaz.

–13:00 Bizkaiko Limusin Arrazako Abeltzarien Txapelketaren sariak banatzea.

–14:00 Azokako gaztai, barazki eta txakolin txapelketen sariak banatzea.

OAKLAND ENGLISH

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 2
ZAMUDIO

946522857

MAILA GUZTIAK

ADVANCED IN ENGLISH

FIRST CERTIFICATE

HIZKUNTZA ESKOLA

BUSINESS ENGLISH

BATXILERGOA

D.B.H.

ZAMUDIOKO BATZOKIA

Gosariak
Eguneko menuak
Plater konbinatuak
Mortzila

Arbolantxa, 5
94 474 37 62



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familiar bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

2019rako Egutegi Pertsonalizatuak



Parque Tecnológico de Bizkaia, 105 - 48170 Zamudio
www.cianoplan.es • 902 103 763



t: I. M. / a: Arantza Atxutegi eta Alaitz Ziordia

Pozik baino pozago azaldu dira antolatzaileak Txorierriko I. Topaketa Feministek euki daben erantzunagaz eta arrakasteagaz. Antolatzaileak honeexek izan dira: Ilargi Betea (Loiu), Garrasia (Sondika), Koxak (Derio), Zapata Gorriak (Zamudio), Moreak (Lezama) eta Zutunik! (Larrabetzu). Egitarau oparoa prestatu eben egun osorako eta mobimendu handiko zapatua izan zan Zamudion. Txorierri guztiko emakumeak bertan batu ziran, alkar ezagutu eta esperientziak batzeko. Horri lotuta, antolatzaileek neska gazteen parte-hartzea azpimarratu dabe, oso handia izan dalako.

Ekitaldiak banan-banan baloratu da-bez. "Kafe-tertulian 80 personatik gora batu ginan eta oso gustura egon ginan, bakotzak bere estilora azaltzen zer egi-ten dogun. Oso esperientzia polita izan zan, eta nabaria zan eguna alkarregaz pasatzeko gogoa genduala". Emagin al-karteko Saioa Zerainek gidatutako ekonomia feministaren gaineko tailerrean 100 lagun inguru bildu ziran eta, besteak beste, ekonomia zer dan, emakumeek ekonomiaren barruan daben papera eta agerikotasuna, eta generoa eta lanbideak aztertu ebezan. Aitortu daben moduan, gehiago jakin eta partekatzeko gogoa-

Txorierri feminista

Txorierriko I. Topaketa Feministen antolatzaileek egun historikotzat jo dabe urriaren 6a. Izan be, euren eretxiz, Txorierriko herri guztiak alkarlanean ibili diran lehen topaketak izan dira, eta hori argi gelditu zan Zamudion goizeko lehen ordutik gauera bitartean. Parte-hartze itzela egon zan ekitaldi guztietan, eta giro ezin hobea egun osoan.



aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zerbitzu bakar batean
-Aurrekontua doan

-Especialitatea:
umeak

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Bizkaia

- Plater konbinatuak
- Ogitarlekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

*Antolatzaileen eretxiz,
Txorierriko herri
guztiak alkarlanean
ibili diran lehen
topaketak izan dira*

*"Topaketak
abiapuntua izan
dira modu
koordinatu baten
lan egin gura izateko"*

*Datorren urtean
be topaketa
feministak
antolatuko
dabez*



gaz lotu ziran, baina jakin-mina hurrengo baten asetu beharko dabe.

Trikipoteoa eta sorgin-dantza zoragarri eta ikusgarriaren ostean, 180 persona alkatu ziran herri bazkarian. Euriak argazki feminista ilundu egin eban apur bat; halanda be, Chochocharlak parte-hartzaileen gogoa berbiztu eban. Ekitaldirik jentetsuena izan zan, 200 lagunetik gora batu ziran-eta. "Oso saio argia eta

adierazgarria izan zan. Emakumeok sexualitatearen inguruan daukaguzan mito eta uste faltsu asko apurtu ziran bertan, eta sistemak sinestarazten deuskuzan gauza asko, txarto ikasi doguzanak edo txarto azaldu deuskuezanak, be komentatu ziran. Ekitaldi dinamikoa izan zan eta oso bideo dibertigarriak ekarri euskuezan. Gazte zein helduok mugidu barik egon ginan ordu bian". Hakima Flissiren musi-

ka-saioak, karaoke ibiltariak eta La Basuren kontzertuak amaierea emon eutsien egunari. "Eguneko protagonistak emakumeok izan ginan, baina gizon batzuk ere egon ziran eta naturaltasunez hartu eben parte ekitaldietan". Umeak jagoteko zerbitzua egon zan eta hori be oso egokitzat jo eben parte-hartzaileek.

Ageriko egin

Topaketek Txorierriko emakumeek alkar ezagutzea eta esperientziak partekatzea euki dabe helburu eta, antolatzaileen ustez, hori bete egin da. "Bestalde, topaketak abiapuntua izan dira modu koordinatu baten lan egin gura izateko. Halan, hemendik aurrera urtean dagozan deialdi ezberdinak alkarregaz batera egingo doguz, informazioa partekatuko dogu eta, lekua egon ezkerro, gure ekintzetan parte hartzeko gonbidapena egingo deutsegu gainontzeko herrietako emakumei". Ziur asko, jardunaldiak zenbait emakume feminismora eta Txorierriko talde feministen lanera hurbiltzeko be izan dira baliagarriak.

Urriaren 6aren ondoren Txorierri apur bat feministagoa da, edo bazan, hori agerian jarri da. "Asmoa da oraindino be agerikoago egitea, eta zentzu horretan bado gu zer egin. Eta jakina, datorren urtean be topaketa feministak antolatuko doguz. Oso pozik gagoz, antolatzen dan lehenengo urtea izateko, jentetza egon dalako eta egun itzela izan dalako. Aurretik lan handia egin behar izan dogu, baina emaitza ikusita merezi izan dau".





Loiuko Cadillac bakartia

t/a: Gaizka Eguzkitza

Amalio Fernandez Villasana de Me-nan, Burgosen, jaio zen duela 71 urte. Gaztetan soldadutza egin zuen Zorrotzan, Bilbon, eta hemen gelditzea erabaki zuen. "Nire herrian zaila zen lan egitea, han 40 behi baino ez baitzeuden. Beraz, elektronika ikasi eta gero enpresa batzuetan egin nuen lan. Azkenik, 27 urte nituela etxetresna elektrikoan denda bat jarri nuen Gurutzetan", esan digu. Garai hartan Barakaldon bizi zen, baina 1990ean Loiu-
ra etorri zen. "Zerbait hurbila eta lasaia nahi nuen. Eta ingurua ezagutzen nuen hemendik bezero batzuk nituelako. Eta hemen nago, gustu-gustura".

Amalioren etxea Katean dago eta handia da. Lekua dauka bertan zaletasunak lantzeko; ortua, esate baterako. "Bizitza Villasana eta Loiuren artean ematen dut. Herri bietatik ibiltzen naiz eta jende guztiak ezagutzen nau. Burgosen sagardoa eta txakolina ekoizten ditut. Denbora ere badauka, jubilatuta dagoelako.

Baina benetako pasioa mekanika da. "Osaba bat nuen Kuban eta 1957an Opel Capitan autoa erosi zuen. Ederra zen. Hemen ez zegoen ia autorik eta horrek liluratu egin ninduen. Orain dela 15 urte gidatzeko aukera izan nuen. Zoragarria izan zen. Era berean, bolada hartan, Ameriketant dirutza irabazi zuten lagunak herrira itzultzen ziren oporretan-eta, eta horiek

Cadillac marka mitikoa da. Hainbat filmetan agertzen dira auto horiek eta abeslariak ere aipatu dituzte zenbait kantatan, Loquilloren *Cadillac bakartia*, esate baterako. Amalio Fernandez loiuztarrari antzinako autoak gustatzen zaizkio betidanik eta duela lau urte Cadillac Calais Deville bat erosi zuen. Zoritarrez, seme-alabak ez datoz bere zaletasunarekin bat eta Amaliok bakarrik disfrutatzen du bere etxean.

ere gidatzen zituzten auto zoragarriak. Ibilgailu horiek betiko izango ditut gogoan. Eta duela lau urte apetak eman zidan eta Cadillac Calais Deville autoa erosi nuen".

"Autoa 30.000 euroren truke erosi nion Madrilgo lagun bati. Antzinako auto bat nahi nuen eta handia izan behar zuen, auto txikiak gustatzen ez zaizkidalako. R8 edo 600 bezalakoak, esate baterako, ez ditut atsegin". Amalioren Cadillac-a 1971n egin zuten eta 1972an matrikulatu zuten Madril. "Ez dut egunero erabiltzen, ez, noski, baina behar bezala mantentzen dut eta noizean behin txangoak egiten ditut. Ibilgailuen azterketa teknikoak urtero gaintzen ditut. Zoragarria da gidatzea, jostailua izango balitz moduan. Arazoa aparkatzea da, aparkaleku batean sartzea, oso luzea delako, ia 6 metroko luzera duelako".

Ez da auto merkea, ez, baina Amalioren esanetan, oso garestia ere ez da. "Autoak 20 litro gasolina behar ditu 100 kilometro-

"Nirea 1971n egin zuten eta 1972an matrikulatu zuten Madril. Nik 30.000 euroren truke erosi nuen"

ko. Era berean, ordezko piezak Interneten bidez erosten ditut Madril. Mantentze lanari dagokionez, Amaliok berak egiten du. "Mekanikari frustratua naiz (kar, kar). Txikitatik gustatzen zait mekanika, nahiz eta elektronika ikasi. Beraz, nik neuk egiten dizkiet autoei mantentze-lanak. Betidanik egin dut: ur-ponpa eraberritu, enbragea aldatu... Denetarik egin dut. Poz-pozik nabil auto baten azpian, lane-rako jantzita. Eta, horregatik, garajea lu-

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

ZAMUDIO
Loteria Nazionala
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com



*"Mekanikari frustratua
naiz (kar, kar).
Poz-pozik nabil
auto baten azpian,
lanerako jantzita"*

baki bat jarri dut, autoak azpitik ikusi ahal izateko. Nire pasioa da".

Argi dago autoa Amaliori gustatzen zaiola, baina ez dio egun osoa Cadillac-i eskaintzen. "Ordu libreak baino ez dizkiot eskaintzen: olioia zelan dagoen ikusten dut, apainketa txikiak egiten dizkiot... Autoa badago nire zerbitzura; ez ni autoaren zerbitzura. Eta horregatik ez zaizkit auto klasikoaren kontzentrazioak gehiegi gustatzen. Izan ere, hara joaten diren lagunek

*"Zoragarria da
Cadillac-a gidatzea,
jostailua izango balitz
moduan. Arazoa
aparkatzea da"*

autoei buruz baino ez dute hitz egiten. Aspergarria da. Hala ere, Loiun antolatu zutenean, etxetik gertu nuenez, hurbildu egin nintzen. Eta Bizkaian beste bateren bat egiten bada, agian animatuko naiz, baina beste barik".

Ameriketako Rolls Royce-ak

Loiutarrak ez die seme-alabei pasioa transmititu, baina bilobek primeran pasatzen dute aititeren etxera joaten diren

bakoitzean. "Argazkiak ateratzen dituzte, autoan sartzen dira... (kar, kar). Kalera joaten naizenean antzeko gauza bat gertatzen zait. Jendea liluratuta gelditzen da eta argazkiak egiten dizkiote ibilgailuari. Normala da. Madrilgo lagun batek esan zidan Cadillac autoak zirela Ameriketako Rolls Royce autoak. Rolls Royce bat erostea gustatuko litzaidake, baina garestiegiak dira (kar, kar)".

Cadillac-a ez da Amalioaren auto bakarra. Eguneroko bidaia Mercedes batean egiten ditu eta, horrezaz gainera, Jeep bat ere badago loiutarraren garajea. "Jeepa konpondu egin behar dut, martxan jartzea lortzen ez dudalako". Etorkizunean agian beste auto klasikoren bat ere erosiko du, baina ez daki ziur. "Auskalo! Odol beroa naiz eta egun batetik bestera erabaki ahal dut besteren bat erostea, baina momentuz ez dut horren inguruan pentsatzen".



EGUNEKO MENUA
lehengorako platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria
9€

Bestoerre 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55



HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

**Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku**



**clínica dental
ZAINDUZ**
hortz klinika

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Pedagogia
Kriminologia

Txonomi etorbidea, 9 - Loria | Arteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 637 79 54 45
info@dentizainduz.com | www.dentizainduz.com

Hitzek kantatzen digutena

Gotzon Barandiaran idazleak (Larrabetzu, 1974) *Hitzen ahairea* obra (Susa argitaletxea) atera berri du kalera. Obra horretan mende eta Erdiko kantugintza izan du hizpide, idazleen eta musikarien arteko elkarreraginetik sortutakoa hain zuzen ere.

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

Egileak azaldu duen moduan, liburua idazteko akuilua Anari abeslariak eta Iñigo Aranbarri idazleak Literatura Eskolaren haritik eskainitako saio bat izan zen, musika eta literatura uztartu zituen. "Orain dela zortzi bat urte izango zen. Gure imajinarioa kantagintzaren bitartez saioa prestatu zuten eta niri gogoia piztu zitzaidan, idazleaz gainera, musikazalea ere banazelako, eta beti gustatu zait diskoetako liburuxkak hartu eta aztertzea, testuak nork idatzi dituen ikustea, hitzak aztertzea..."

Orain bost urte, idazleen eta musikarien arteko elkarreraginetik sortutako kantagintzari buruzko saioak prestatzen hasi zen Rafa Rueda musikariarekin batera, eta saio horiek ikastetxeetara, ordu bateko formatuan, eta Udako Euskal Unibertsitatera eta kultura elkarteetara, 12 orduko formatuan, eraman zituzten. "Euskaldunak zergatik espainolez gehiago irakurtzen duen, zergatik musika erdaraz gehiago entzuten duen... kezka genuen eta horrek bultzatu gintuen gure musikarekin, literaturarekin, kantagintzarekin... zer gertatzen ari zen aztertzeraz". *Hitzen ahairea* liburua ikastaro horiek prestatzeko eta emateko lanorduen, eta entzuleekin partekatutako gogoeten emaitza da. "Saiakera bat da, irakurleengan gogoeta bat eragitea helburu

duena, eta idazle eta musikarien arteko kantagintzari buruzko ikuspegi orokor eta integral bat eskaintzen duena".

Koldo Izagirrek 40 poeten lana batu zuen *XX. mendeko poesia kaierak* bilduman eta horretan, atal bat, *Diskografia*, zuzendu zuen olerkari horien testuetan oinarrituta egindako kantuetara. Barandiaranek 140 kanta jaso ditu bere liburuan, eta horretarako, ezinbesteko altxorra izan du Izagirreren lana. Era berean, Pasaia idazleak bilduma aurkeztu zuenean adierazitakoarekin bat eginez, Barandiaran ere ohartu da XIX. mendearen amaieratik XX. mendera bitarteko idazleen eta musikarien arteko kantagintzaren ezaugarri nabarmenenak ideia hau duela ardaztat: galtzailearen kontzientzia kolektiboa. "Egia da beste gai batzuei ere kantatu diegula, maitasunari, esaterako. Baina gai horiek ez dira idazleen eta musikarien arteko kantagintzan gehien nabarmentzen direnak. Kantagintza horretan gailentzen direnak identitatearekin daude lotuta, hizkuntzarekin, lurraldetasunarekin, klase-borrokarekin..."

Bestalde, joera-aldaketa ere azpimarratu du larrabetzuarrak. "60ko hamarkadatik 80ko hamarkadara arte gehienbat aldarrikatzeko kanta egiten dira: mezua zuzena da eta egilearen helburua da entzuleak jarrera aktiboa har dezala. Handik aurrera, berriz, ageriko gauzak esatetik iradokitzena



pasatzen da, eta idazleek eta musikariek irakurketa bat baino gehiago eduki ditzaketen testuak kantatzen dituzte". Egilearen esanetan, erbestea eta euskara ere oso presente daude gure kantagintzan, "beti identitate eta galtzaile ikuspuntu batetik".


Genero ikuspegia ere aztertu du liburuan. Hala ere, aipatu duen moduan, asko ez dago arakatzeko, emakumea gure kantagintzatik ia desagertuta dagoelako. Salbuespen bakarra Itxaro Borda da. "Amaia Lasa moduko poeten testurik ez da musikatu. Eta gero, emakumea kantuetan agertzen denean beti dago negarrez, senarraren zain... Oso gutxitan izan da protagonista eta aztertu beharra dago zergatik den hori. Zor bat dugu horretan. Berriz aztertu eta gaur egunera ekarri beharko genuke. Galdera da, genero ikuspegitik, XIX. mendeko kantagintza hori dagoen moduan gaur egun erabili ote genezakeen".

Euskaldunon imajinarioa

Hiru ondorio nagusi atera ditu egindako lanetik. Lehenengoa da idazleen eta musikarien arteko elkarreraginak garrantzia izan duela euskaldunok sentitzeko, izateko eta pentsatzeko moduan. "Gure identitateari, hizkuntzari, lurraldetasunari, klase-kontzientziari buruz ditugun diskur-

*"Gure identitateari
buruz dugun
imajinarioa
kantagintza horren
bitartez elikatu dugu"*

*Kantua oinarria
izan da
historia
kontatzeko eta
horretaz jakiteko*



tsoa eta imajinarioa kantagintza horren bitartez elikatu dugu. Adibidez, Euskal Herria zazpi probintziek osatzen dutela kanten bitartez ikasi dugu, edo euskara dela euskaldunon egiten gaituena, Xabier Amurizaren hitzen eta Oskorri taldearen kantaren bidez. Nire euskalduntasuna edo sentimendu abertzalea, eta nire herriarekiko eta hizkuntzarekiko dudak atxikimendua neurri handi batean kantagintza honetatik datoz”.

Bigarren ondorioa da kantua oinarria izan dela historia kontatzeko eta horretaz jakiteko. “Esate baterako, guk oso gutxi ikasi genuen karlistaldiei buruz, baina Joseba Tapiaren *Eta tira eta tunba* diskoari esker jakin dugu zer-nolako ezinikusia zegoen euskaldunen artean, karlista eta liberalean artean. Disko horrekin, *Agur Intxorta maite* eta beste kantak batzuekin ibilbide historiko bat egin daiteke, Orreagatik hasita gaur egunera arte”.

Azken ondorioa da euskal kantagintzak bilakaera bat izan duela, eta gaur egun beste modu ezberdin batean kantatzen zaiela gizarte gaiei. Horrela, lehen esan bezala, aldarria ia desagertuta dago idazleen eta musikarien arteko kantagintzan, eta idazleek irudiei eta metaforei lotuta dauden baliabideak erabiltzen dituzte, irakurleari ulertzeko ahalegina eskatzen diotenak eta irakurketa bat baino gehiago eduki ditzaketenak. “Kantagintza oso atomizatuta dago eta talde bakoitzak bere publikoa du. Idazle bakoitzak ere badu bere irakurle-kopurua. Jada ez dago helburu kolektiborik eta banakotasunera jotzen da. Musika estiloei ere asko bideratu dute hori, testu batek ez duelako balio edozein musika estilotarako”.

Hitzen ahaireak liburua Bilduma Urdinerako, sakelako liburuak osatuta, argitaratu du Susak. Liburua argitaletxearen webgunean (<http://www.susa-literatura.eus/liburuak/best24>) ipini dute irakurgai, debalde, eta hor obran aipatzen diren 140 kanten 227 bertsio ere bildu dituzte: <http://susa-literatura.eus/liburuak/best2408>. “Bata bestearen atzetik entzunez gero, konturatzen zara gure bizitzaren parte bateko soinubanda bat direla, eta kantak garai, egoera, pertsona... jakin batzuekin lotzen dituzu. Era berean, ikuspegi bat ematen dizu gaur egungoa ulertzeko oso lagungarria izan daitekeena. Zeri idatzi eta kantatu diogu gaur egun arte, eta zeri gaur egun”. Idazle eta kanta bakoitzaren testuinguru soziopolitikoak ere jaso du Barandiarének liburuan, “ezin delako testu edo kanta bat bere garaitik kanpo ulertu”.

- % 20
Stressless besaulkietan eta sofetan

STRESSLESS KONFORTAREN EGUNAK

SUIT DELUX LEIOA
Avanzada, 80. Leioa
944 316 516
leioa@suitdelux.com

SUIT DELUX
ATEEDEN MARKA ESklusiboak
www.suitdelux.com

SUIT DELUX DERIO
Derioko seminarioa. Derio
944 545 147
derio@suitdelux.com

t: Gaizka Eguzkitza / a: Gaizka Peñafiel

1920. urtean-edo, futbol talde bat bazegoen Lezaman, baina hori frankismoan desagertu zen. Hainbat urte pasatuta, 1989an, herriko futbol zale batzuek futbol taldea birsortu zuten Lezama Sport izenarekin. "Helburua berbera da lehen, orain eta etorkizunean: herriko gazteei Lezaman bertan futboleko jokatzeko aukera eskaintzea", esan digu Alex Martin mahaikideak.

Taldea nahikotxo aldatu da azken 30 urteotan, batez ere azken bost urteotan. "Aurreko mahaikideek, nagusiek, taldea utzi zuten eta euren lekukoa gazte batzuek hartu genuen. Batez beste, 25 urte ditugu sei mahaikideok. Eta taldeari dagokionez, aurten erabat eraberritu dugu, 16 jokalar berri ekarri ditugulako. Eta guztiak gazte-gazteak dira, 20 urte ingurukoak. Helburua da aurrera begiratzea eta etorkizuneko proiektua finkatzea".

Jokalar berri asko bai, baina gertutasuna galdu barik, hau da, jokalar gehie-

*"Helburua hau da:
herriko gazteei
Lezaman bertan
futboleko jokatzeko
aukera eskaintzea"*

*"Ilusioz betetako
proiektua gidatzen
dugu. Zerbait polita
eta serioa egin
nahi dugu"*

LEZAMA SPORT FUTBOL TALDEA

Futbolari dagokionez, badirudi Lezaman Athletic taldea baino ez dagoela, baina 1989tik aurrera Lezama Sport ere badago. Orain bost bat urte, herriko gazte batzuek nagusien lekukoa hartu zuten eta kluba zuzentzen hasi ziren. Bidea eginda, aurten 16 jokalar berri sartu dira taldean, guztiak gazte-gazteak. Gora gaztetasuna!

nak herrikoak edo Txorierrikoak dira. "Kluba herrira hurbildu nahi dugu, gurekin bat egin dezaten, eta partiduetara ahalik eta zaletu gehien erakarri. Ligako lehenengo partidura jende pilo hurbildu zen, 100 inguru, eta oso pozik gaude, giro itzela egon zelako. Aurten herriko jendea inplikatuago ikusten dugu, bai gazteak, bai nagusiak. Hori oso garrantzitsua da guk partiduak irabazteko".

Eta jendea erakartzeko, klubekoek gizarke sareak gero eta gehiago erabiltzen dituzte: kronikak, bideoak, albisteak... Denerik. "Egunero zerbait kaleratzen saiatzen gara. Kalitatezko edukiak sortuz gero, jendea etorriko da, eta hori da guk nahi duguna". Ez da lan erraza jendea futbol taldera erakartzea. Batetik, herriko lehenengo kirola pilota delako eta horrek jokalar asko kentzen dizkiolako futbol taldeari. "Bestetik -dio Alexek- Bizia taldeko futbol eskolak indarra galdu du eta gure gazteak Larrabetzura edo Zamudiora joaten dira jokatzera".

Lezama Sport elkarteak talde bakarra dauka, gizonezkoa, Erik Urzelai entrenatzailearen zuzendaritzapean. "Gora egitea gustatuko litzaiguke: harrobiko talde gehiago sortzea nahiko genuke, emakumezko talderen bat ere bai.... Baina oso



zaila da eta epe ertainean ezin izango dugu horrelakorik egin". Diruari dago-kionez, talde zaletu guztien moduan ibiltzen da. "Dirua ateratzeko, zozketak, loteria... Horrelako gauzak egiten ditugu. Gainera, Udalak diru-laguntza ematen digu eta Cardiva eta herriko beste enpresa batzuek laguntzen digute".

Athletic

Lezama Sport taldeak astebururo jokatzeko Athleticen zelaian, arkupean. Ez da harritzekoa, beraz, harreman ona izatea talde zuri-gorriarekin. "Bere zelaian jokatzeko betidanik eta, gainera, gainerako instalazioak erabiltzen uzten digute: gimnasioa, aldagelak... Era berean, betidanik erakutsi digute hurbiltasuna. Esate baterako, duela aste batzuk taldearen aurkezpena egin genuen eta Athleticen ordezkari batzuk ere etorri ziren, Carlos Gurpegi jokalaria ohia, tartean. Eskertzekoa da". Bailerako taldeekin ere badute harreman ona. "Gure mailan ez dago Txorierriko talderik, eta tamalez ez dugu derbirik jokatzeko, baina ondo konpontzen gara guztiekin".

Kluba sortu zutenetik, lezamarrek Lurraldeko Bigarren Mailan jokatzeko zuten, Bizkaiko Federazioko baxuena, baina duela hiru urte igoera lortu zuten Lehenengo Mailara. "Historia egin genuela esatea gustatzen zaigu (kar, kar). Hurrengo denboraldietan, gorriak ikusi ditugu mailari eusteko. Lan ikaragarria egiten dugu eta oso giro polita dago taldean. Agian hauek dira gakoak. Duela urte bi, azken jardunaldian salbatu ginen eta iaz kanporaketa jokatu behar izan genuen, jaitsiera ekiditeko. Solo-koetxeren kontra jokatu genuen eta oso gogorra izan zen. Lehenengo partiduan, etxean, 0-1 galdu genuen, baina bigarren 1-3 irabazi genuen luzapenean. Sufrimendu itzela".

Aurten ez dute hainbeste sufritu nahi. Baina jokalaria oso gazteak dira eta ez dute Lehenengo mailan eskarmentu handirik. Alexek, aldiz, buelta eman dio argudioari eta baikor agertu da. "Jakín badakigu futbolari gehienak lehenengoz sartuko direna lehen Lehenengo Mailan; hala ere, ahulezia indargunea ere bada. Izan ere, gazteok ilusioz betetako proiektua gidatzen dugu. Zerbait polita eta serioa egin nahi dugu eta oso motibatuta gaude".

www.bbk.es

bbk

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO: TXARTELDEGIAN* Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago

2D: 4 € 3D: 6 €

LA CASA DEL RELOJ EN LA PARED
EG-7 104' (2D)
Azaroak 4, 17:00 (EUSKARAZ)

OLA DE CRÍMENES
EG-12 97' (2D)
Azaroak 4, 19:30

EL REINO DE LOS ELFOS
EG-7 104' (2D)
Azaroak 11, 17:00

LA SOMBRA DE LA LEY
EG-16 126' (2D)
Azaroak 11, 19:30

VAYA BICHOS
AG 88' (2D)
Azaroak 18, 17:00

MIAU
EG-7 90' (2D)
Azaroak 18, 19:30

EL CASCANUECES Y LOS CUATRO REINOS
(2D)
Azaroak 25, 17:00

BOHEMIAN RHAPSODY
(2D)
Azaroak 25, 19:30

ETA ABENDUAN...

ANIMALES FANTÁSTICOS:
LOS CRÍMENES DE GINDELWALD
CONDORITO: LA PELÍCULA

*oharra: produktorearen baimenaren arabera programazioak aldatuak izan daitezke

5G, datozen telefonoen (eta beste traste batzuen) hizkuntza

t: Xabier Diaz, teknologiaren kuxkuxeroa

2019 eta 2020 bitartean, 5G teknologia zabaltzen hasiko da. 2G teknologiak batez ere ahotsa eta SMS-ak bidaltzea zuen helburu, 3Gak sarean nabigatzea, eta 4Gak, berriz, abiadura handitzea, baita sare sozialak, erabiltzaile anitzeko jokoak eta multimedia-transferentzia ere.

5 teknologiak 9-20 aldiz handituko du telefono mugikorren abiadura. Datu-jarioa zabalduko du eta latentzia, abiadura hartzeko behar den denbora, jaitsiko du. Gainera, telefono mugikorretan ez ezik autoetan, eraikinetan, etxe-tresnetan, sentsoreetan... ia edozein trastetan erabili ahal izango da. *IoT* edo *Internet of Things* gogoratzen duzue?

Teknologia horren bidez, gaur egun ditugun zenbait muga gainditzeko gai izango gara. Abiadura eta datu-jario zabalari esker, kalean egonda ere ez dugu Wi-Fi konexioaren falta igarriko, eta, teknologiari dagokionez behintzat, Internetarako sarbide mugagabea eta merkea posible izango da. Gainera, esan bezala, hainbat gailu eta tresnetan ere erabili ahal izango dugu. Gure autoak sarera eta elkarrekin konektatu ahal izango dira. Elkarriketa era automatiko eta autonomo batean gertatuko da, ia denbora errealean, eta horrela posible izango da trafiko eta apar-

kalekuen kudeaketa eraginkorrago bat, edo, autoen eta trafiko zein meteorologia erakundeen arteko elkarriketari esker, istripuak ekiditea.

Baina 5G teknologiak duen arazoetako bat hau da: horrelako abiadura eta jarioak lortzeko, gaur egun erabiltzen diren igozte-frekuentziak hobeto erabiltzeaz gain, 24 GHz-tik gorakoak ere erabiltzen ditu eta horrek asko mugatzen du hedapena. Beraz, dauden komunikazio-dorreak eguneratzeaz gain, berriak jarri beharko dira. Hau da, hirietan guztiz aprobetxatuko dira 5G teknologiaren onurak; hala ere, beste leku batzuetan abiadura soilik bederatzi aldiz handiagoa izango da. Eta, noski, traste gehiago egongo dira teilaletan, hari gehiago, antena gehiago...

Berehalako aldaketa

Arazoak arazo, aldaketa berehala dator eta zuzenean eta egunero nabaritutako dugu. *Streaming* bidezko telebista edo partekatutako bideoak edonon, bere-berehala eta geldiane barik ikusiko ditugu. Prezioak jaitsi egingo dira (edo teknologia behintzat ez da aitzakia izango, horiek ez jaisteko). Etxe zein lan eremu adimendunak egongo dira, tresnen eta sentsoreen informazioa eta kudeaketa urrunetik egingo da...

Ez dakidana zera da: autoen arteko elkarriketa horiek geure artean suertatzen diren hitz potoloz betetako ika-miken era-koak izango diren ez. Ikusiko dugu...



*Gure autoak sarera
eta elkarrekin
konektatu ahal
izango dira*

Gutxinaka badator 5G Teknologia, tapuntu.eus, <https://goo.gl/3Rr3ef>

5G, Wikipedia, <https://goo.gl/pLT2o>

What is 5G? Everything you need to know, Techradar, Mike Moore, <https://goo.gl/khMLcf>

5G Devices Are about to Change Your Life, Scientific American October 2018, David Pogue, <https://goo.gl/E4SQNM>

5G open for business, ericsson, <https://goo.gl/8nYRyY>

Vodafone empieza el despliegue (precomercial) del 5G en seis ciudades españolas, xatakamovil.com, 2018 uztailearen 30a, Amparo Babiloni, <https://goo.gl/SmWUHX>

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5. behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Muji TALLERAK

Industria kalea
Asuntze kalea 6-16-17 C2 Pabiloia
48160 Derio / Bizkaia
688 847 633 / 946 572 315
iker@muji-tallerak.com

Ahobizi eta belarriprest

Hyde Park-eko Speaker's Corner-ean



a: displacednortherner.files.wordpress.com

t: Juan Luis Goikoetxea

Londresera bidaiatzen duzunean, irakurle, hurreratu zaitez Speaker's Corner-era. Han erraz aurkituko duzu ahobiziren

bat hizlari, belarriprest multzoa aurrean dela. Gainera, hiriburuko beste leku batzuetan ere topatuko dituzu hizlariok –Finsbury Park-en, edo Kennington Park-en–, baita Australian eta Kanadan ere.

Euskaraldirako –metonimiaz baliaturik– ahobizi eta belarriprest pertsonaiak sortu dira; biak ere, gure herri, txoko, denda nahiz lagunarteetan parte hartuko dutenak.

Euskararen aldi horretan sor litezkeen ekimen bizipozgarrien artean, berbaldien txokoak edo Hizlarien Kornerrak aipatuko ditugu. Hau da, *speaker* izatea, Berbalaguneko, euskaltegiko edo eskola nahiz ikastola zein ikastetxeetako ikasle-irakasleak, aulkiren batera igonik –gelatik kanpo–, bakoitza hogeiren bat minutuz. Era horretara, eten bako diskurtsoak, berbaldiak entzungo lirateke Euskaraldi aroan. Inork usteko balu, dena den, ekintza hori ausartegia dela, lotsa sentitzekoa, bada ezkutuagoko zeregin eraginkor bat. Hau da, whatsapppe bidaltzen diren mezu idatzien orde, ahotsezko mezu grabatuak igortzea lagunei eta ezagunei. Horrela jardunez gero, ahobizi eta belarriprest elkarriketan ibiliko dira hamaika egunez, behar bada, mezu idatzietan ez eze ahozkoetan ere bai.

Ea gizarte-ariketa hauetan ez den hitza, berba, elea belarri batetik sartu eta bestetik irteten! Hori guztiori geroak esango du. Gaurkoz, txindor mokobizia dabil kantari, udagoienaren atari, itxaron barik Euskaraldiari. Eta gu?

GAMINIZ

JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

RADIO TAXI FEMADE

Zure taxi,
Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertoblizao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

luz zamudio

ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Ale-apaindegia

M^a Antonia Llodio

Txorieneriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Patata kroketak



t: www.sukaldean.com / a: www.shoothercook.es

Osagaiak

- 110 g gurin
- 110 g irin
- Litro erdia esne
- Litro erdia esnegain
- Kilo erdia patata-mami uretan gatzarekin egosita

Prestetako errea:

Betiko bexamela egingo dogu: esnea eta esnegaina irakiten ipiniko doguz, eta ondoren urin eta gurinaren gainean isuriko doguz. Saltsea nahas-

tuko dogu, su ez-tian, ondo egosten dan arte. Gatzarekin botako deutsagu. Bestetik, purregailu batez patata-mami txikituko dogu eta bexamelari gehituko deutsagu. Hori hoztu baino lehen, gurina gehituko deutsagu, dadotan zatitua. Irabiagailu batez nahastuko dogu guztia, ore fin bat lortu arte. Hozten itxiko dogu.

Geroago, bolatxoak egin eta arrautzagaitan pasatuko doguz. Komenigarria da prijidu aurretik kroketak ordu batzuetan hozkailuan izatea; osterantzean, lehertu egingo dira.

Ettxeko sukaldaritza

Makarroiak, txanpiñoi eta cherry tomateakaz

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 300 g makarroi
- 200 g txanpiñoi xerretan
- 4 berakatz ale xerretan
- 125 g cherry tomate
- Oliba-orio zurrusta bat eta gatzarekin

Prestetako errea:

Egosi makarroiak betiko eran. Tomatetxoak garbitu eta laurdenetan ebakiko doguz. Berakatzak oriotan prijiduko doguz. Gorritzen hasten diranean, txanpiñoiak gehitu eta minutu bati prijiduko doguz. Ondoren, gehitu tomateak eta gatzarekin. Azkenik, makarroiakaz nahastuko doguz. Berotu eta zerbitzatu egingo doguz.

t: Maite Lekerika / a: recetasazucena.com



ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Gule, 517
COOP. SANABERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Nire Autocasion NA
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Faxa: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Jatetxea SAN ISIDRO
EUSKO OKULETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Fax: 94 454 14 18 Mungialde etorbidea, 25 48160 DERIO

BC Fun Fitness GYM
EKIPAMENDU BERRIA

Segimendu pertsonalizatua

Zamudio (IAT ondoan)
Prezio bereziak, talde eta enpresentzat

Jarraitu

f t y o u t u b e

Ugaldaguren II. Industrialdea, partzela 9, nabe 3
628836753 - 944520815 gymtxorierni@gmail.com

Umeen txokoa: 9 desberdintasunak

Ezetz 9 desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: es.hellokids.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Amek ez dute (Elkar), Katixa Agirre.
- Larrutik ordaindua (Alberdania), Joseba Lozano.
- Zer luzea negu hau (Elkar), Josu Goikoetxea.

LITERATURA: GAZTEAK

- Bat, bi, hiru, txiru-liru! (Pamiela-Kalandraka), Nadia Budde (Il.) / Xose Ballesteros (Ed.).
- Gerra zikinkeria! (Elkar), Ana Jaka Garcia. Josu Mitxelena Unsain (Il.).
- Sinbad deitzen zidan (Alberdania), Francisco Veloso Castro.

MUSIKA

- Askatu korapiloa (Discoak Denetik), Dut.



Sudokua

7					1	3
2				3		9
3			5			2
	2					
		1		8		
	8	9			3	
					8	1
			9		4	
		7		2		

3	9	6	2	1	7	5	4	8
2	7	4	5	6	8	1	3	9
1	5	8	9	4	3	7	2	6
5	1	3	7	2	6	8	9	4
6	4	2	8	9	1	3	7	5
9	8	7	4	3	5	2	6	1
7	2	9	1	5	4	6	8	3
8	6	5	3	7	9	4	1	2
4	3	1	6	8	2	9	5	7

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 – 639 58 25 47

MARMOLGINTZA
GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK ORRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkai

T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA

Jata kalea, 2 – DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Erakusketak

Sondika

- > "Ruta por el empoderamiento". Azaroaren 15etik 28ra, liburutegian.

Derio

- > "Egurraren eskulanak", Amador Ramosen eskutik. Azaroan.
- > "Euskadiko boxearen argazkiak, historialak eta tresnak". Azaroaren 12tik 30era, Kultur Birikan.

Larrabetzu

- > Euskarazko produktu ez sexistak. Azaroaren 23an, 17:00-20:00, eskolako jantokian.

Hitzaldia

Derio

- > "Bihotzekoa, emakumeengan". Azaroaren 8an, 18:30ean, Kultur Birikan.
- > "Nola hezi sexu-berdintasunean". Azaroaren 21ean, 18:30ean, Kultur Birikan.
- > "Sexismoa, komunikabideetan". Azaroaren 22an, 18:30ean, Kultur Birikan.

Ikastaroak

Sondika

- > Argazki-moldaketa (GIMP). Izena ematea: azaroaren 5etik 9ra, liburutegian. Ikastaroa: azaroaren 19tik 29ra.

Derio

- > Ohiko sukaldaritza, oinarritzko jostintza, aretoko dantzak. Izena ematea: azaroaren 7ra arte, Kultur Birikan.
- > "Sexu harremanak eta indarkeria matxista". Azaroaren 16an, 19:00etan, Gaztelekuan.

Larrabetzu

- > Autodefentsa feminista. Azaroaren 24an, Errebale eraikinean. Izena ematea: azaroaren 22ra arte, Angulerin.

Zamudio

- > Sexualitatea eta indarkeria matxista. Azaroaren 23an, 19:30ean, Gastetazioan. Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren haritik.

Lezama

- > Neska gazteentzako autodefentsa tailerra. Azaroaren 24an, 10:00-13:00, Gaztelekuan.

Ikuskizunak

Sondika

- > *Apaxi kontalari*. Azaroaren 16an, 18:00etan, liburutegian.

Zamudio

- > *Desenfocada* film laburra. Azaroaren 23an, 19:00etan, Zamudiotarren. Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren haritik.
- > *Saxofonistaren istorioak*, umeentzako ipuin kontalaria. Azaroaren 24an, 11:30ean, liburutegian.

Larrabetzu

- > Euskaraldiaren inguruko bakarrikzeta, Beatriz Egizabalen eskutik. Azaroaren 10ean, 20:00etan, eskolako jantokian.

Irteerak

Loiu

- > Loiu-Zabaloetxe mendi martxa. Azaroaren 11n. Izena ematea: 08:30ean. Irteera: 09:30ean.

Sondika

- > Galdameseko bide berdea. Azaroaren 25ean, 09:00etan. Izena ematea: azaroaren 21era arte, liburutegian. Guraso elkarteak eta Udalak antolatuta.
- > Indarkeria matxistaren aurkako martxa. Azaroaren 25ean, Goiri Erdikoa plazako kioskotik.

Irteerak

Lezama

- > Menda. Azaroaren 9an, 18:00etan, Herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatuta.
- > GR Uribe. Azaroaren 18an, 09:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatuta.

Zamudio

- > Turtzioz - Karrantza. Azaroaren 25ean, Arroeta taldearen eskutik.

Jaiak

Sondika

- > San Martin. Azaroaren 11n, 12:30ean: meza, aureskua, Gorantzaileak dantz taldearen eskutik, eta kalejira.

Lehiaketak

Zamudio

- > San Martinetako Txapelketa. Arku jaurtiketa. Azaroaren 11n, kiroldegian.
- > Gezi-bide elkarteak antolatuta. Zamudioko Rallya. Azaroaren 16an eta 17an, Kotxozulo eta Koltza aparkalekuan. Zamudio Racing elkarteak antolatuta.
- > Jiu-jitsu, Estatu mailako txapelketa. Azaroaren 25ean, kiroldegian.

Lezama

- > IX. Ziklokros Zirkuitua. Azaroaren 25ean, Zorribike taldeak antolatuta.

Larrabetzu

- > Aizkolari txapelketa. Azaroaren 18an, 12:00etan, frontoian.

Musika

Derio

- > Santa Zezilia Eguna. Azaroaren 24an, San Isidro elizan.

Lezama

- > Santa Zezilia Eguna. Kantu-poteoa, herriko tabernetatik. Azaroaren 25ean, eguerdian, Ekidazu abesbatzaren eskutik.

Larrabetzu

- > Domekak, Hori Baien: Eraul. Azaroaren 18an, 18:30ean.

Bestelakoak

Txorierr

- > Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguneko elkarretaratzea, azaroaren 25ean. Derio, 12:30ean, Herriko plazan; Zamudio, 12:00etan, Kultur Etxean; eta Larrabetzun.

LOREGARBI GARIKETA ZERBITZUAK

Guri-itunak, orokorrean
Autokom konsumitzaileak
Mantentze guri-itunak
Bulegoak eta lokalak
Orra emariak garbitzeko
Itasotzak
Zabur bilketa

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone Tel: 94 406 49 92
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443
loreagarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai izaguru Facebook-en

HABACITEGIA
URDHITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskeirik asko
etortzeagaitik

SAN MARTIN

ZEMENDIAK

9, 10, 11 ETA 12

JAIK

ZEMENDIAK 9, BARIKUA

- 18:30 | Txupina botako da, Kantareluxek abestuko dau eta Ikurrina jasoko da
Pregoia Ruben Glerak egingo dau
Kartel-lehiaketako sari-banaketa
Bertaratzen diranentzako gozokiak
Txokolatada, Zamudio Racing Elkartearen txosnan
Kalejira, Bertokogaz eta Gazte Elai txistu taldeagaz
20:00 | Zamudio Izar-lehiaketa Sabino Arana plazan
23:00 | Kontzertuak: Oxabi + DJ Paco Sánchez

ZEMENDIAK 10, ZAPATUA

- 11:00 | Puzgarriak Kultura Etxean
12:00 | Kalejira Zamudion zehar
18:00 | Euskal Dantzak Hiru Bat taldeagaz, Kultura Etxean
20:00 | San Martin XXXII. Kontzertua San Martin elizan:
Tantak (Mungia), Xatz Eskifaia (Hondarribia), Nurat (Gasteiz)
eta Zamudioko Kamara Korala
23:30 | Kontzertuak: Vendetta + DJ Markelin

ZEMENDIAK 11, DOMEKA

- 11:00 | Arbolantxa Pilota Elkartek antolatutako esku-pilota partiduetak, frontoian
Meza nagusia
12:00 | Kalejira Zamudion zehar
18:00 | Puro Relajo 'mejikanada' taldea Sabino Arana plazan

ZEMENDIAK 12, ASTELEHENA

- 11:00 | Meza nagusia
12:00 | Luntxa, elizpean
16:00 | Adintsuen Taldeak antolatutako karta-txapelketa,
Adintsuen Etxean
(Zamudion erroldatuek baino ez dabe parte hartu ahal izango)

ERASO SEXISTARIK GABEKO JAIEN ALDE



ESKAITZAK UDAZKENA - NEGUA 2018

STIHL®

Eskaintzak, 2018ko abenduaren 21era arte.

DAKITENEI ZUZENDUTA

Profesionalen makinak, guztion eskura



Bakarrik zure denda espezializatuan



BANATZAILE PREMIUM
BAKARRA BIZKAIARAKO

agrojardín
Astikene

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
Tel.: 944 540 652 / Fax: 944 540 653
astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com